

**hh**  
**hik hasi**

**199**

**20 urte euskal hezkuntza ospatuz**



**ROSA SENSAT ELKARTEA, MENDE ERDIA HEZKUNTZA IRAULTZEN • LEO PAHKIN**

• 0-3 FORMAZIOA: TAILERREN GARRANTZIA • EKARPENA: AMARA BERRI

• EDURNE SALEGI: DOLUA, ZER ATERA DEZAKEGU BALIOTSUA? • UNAI MUÑOA



## BI KOBAZULO

UXUE ALBERDI • ANTON OLARIAGA

Anik bi kobazuloen ipuina kontatzeko eskatu dio amonari. Istorioak dio Hodei eta Argi bata iparraidera begira dagoen kobazulo batean eta bestea hegoaldera begira dagoen beste batean bizi zirela bizkarra emanda.



## AMA GAIZTOAREN IPUINA

ANTXIÑE MENDIZABAL • ARITZ EIGUREN

Bi ahizpen arteko elkarriketa umoretsua zein dramatikoa, ama gaiztorik ba ote dagoen hizpide dutela. Ipuin klasikoetako amen ontasuna zalan-tzan jartzen hasi eta egiatzko ama baten maitasuna zertan den gogoeta egiten amaitzeko.

8

URTEK  
GORA

## BIHOTZA LO DAUKAT, ETA ZER?

ALAINE AGIRRE • JOKIN MITXELENA

Martinak bihotza lo dauka; bera ere ez da gauza bere bihotzaren taupadak entzuteko, haren zurrungak baino ez ditu entzuten. Eta horregatik, Martina bera erdi-lo dago askotan, ametsen munduan.



## EZ NAIZ BARAZKIJALEA, ETA ZER?

TXANI RODRIGUEZ • IOSU MITXELENA

Mikel barazkijalea da, gurasoek, bere nobe beharrez, horrela erabakita. Egun batean, ordea, ailita Xalbadorren baserrira joanda, aurrenoko aldiz dastatuko du Mikelok txorixo puska bat eta handik aurrera gauzak aldrebesten hasiko zaizkie.



# aurkibidea



**10**  
gaia

## ROSA SENSAT ELKARTEA, MENDI ERDIA ESKOLA IRAULTZEN

Espainiako diktadurak behartuta, klandestinitatean hasi zen lanean Kataluniako Rosa Sensat elkarteak duela 50 urte, helburu argi batekin: hezkuntza-sistema berritzea, edo are gehiago, iraultzea. Irakasleen formazioa izan zen lehen zeregina.



**16**  
elkarrizketa

## LEO PAHKIN

Hik Hasi-k antolatutako "Herri hezitzailea, eskola herritarra" jardunaldietan hartu zuen parte Finlandiako Hezkuntza Nazionaleko aholkulariak, hango hezkuntza-sistema azaltzeko. Gertuko kudeaketa, eskolen autonomia, irakasleen prestakuntza altua eta herritarrek profesionalengan duten konfiantza dira, besteak beste, hango ereduaren arrakastarako giltza.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

**ROSA SENSAT ELKARTEA**, mende erdia eskola iraultzen

16 elkarrizketa

**LEO PAHKIN**, Finlandiako Hezkuntza Nazionaleko aholkularia

24 LOMCEri ez! Gure hezkuntza eraiki!

Belen Tascón, Xarxa de Escoles Insubmises

28 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa

Tailerren garrantzia / Ana Araujo, Egunsenti eskola

30 ekarpena

Amara Berri eskola

36 galdeidazue

Dolua, galera, aldaketa, gabezia... zer atera dezakegu baliotsua? Ederne Salegi

40 Proposamena: Arbizuko eko-kanpina

42 Atzeko atetik

Unai Muñoa. Bertsolaria

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus); Posta Elektronikoa: [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus); Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostizu, Amaia Mendizabal eta Arantzasu Muñoa. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez, Matilde Sainz eta Amaia Vazquez. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2015-05-29). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoz baliu zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.







# TXINDOKIKO ITZALA

## ABENTURA PARKEA

Segurtasun osoz, ume eta gazteak zuhaitz batetik bestera joko desberdinen bidez ibiliko dira: zubi nepaldarrak, tirolinak, kulunkak...



## ORIENTAZIO IBILBIDEA

Mapa baten laguntzaz, bidean markatutako puntu guztiak topatu beharko dituzte jokoak gainditu ahal izateko.



ABENTURAZKO  
EKINTZAK  
IKASTETXEAK  
TALDEAK

Lehen hezkuntza,  
bigarren hezkuntza  
eta batxilergoko  
ikasleei egokitutako  
ekintzak dira.



## MENDI IBILBIDEAK

Aralarreko Natur Parkeko tontor, txoko eta altzorak ezagutzeko aukera izango dugu.

## ESKALADA IKASTAROAK

Amezketako Zazpiturriko eskalada eskolan kirol distiplina hau praktikatzeko aukera bikaina da.

Larraltz auzoa, Abaltzisketa  
info@txindokikoitzala.com

628 947 253

WWW.TXINDOKIKOITZALA.COM

# editoriala ekaina

## Batzuen amets, besteen errealitate



**Urrutiko administrazioek eta komunitate arrotzek erabakitako eskola-ereduen aparretan gaude Euskal Herrian. LOMCEk iragarritako Lehen Hezkuntzako hirugarren mailarako diagnosi-probak antolatu ditu maiatzean zehar Eusko Jaurlaritzak, eta protestak eta plantoak egin dituzte Euskal Herriko hainbat eskoletan.**

Atzerrira begira jarri da *hik hasi* zenbaki honetan; Herrialde Katalanetara eta Finlandiara, zehazki. Eta, paperaren gainean, munduko mapa horietako batean, urrun egon arren bata bestearengandik, baloreetan eta filosofian, burmuin eta erraietan, uste baino hurbilago daudela ikusi du.

Eskola eta bere inguruko komunitatearen arteko loturaren garrantzia, ideia hori dute hizpide bai Finlandiako Hezkuntza Nazionalako aholkulari Leo Pahkinek, bai Kataluniako Rosa Sensat irakasle-eskolako kideek. Finlandian, errealitatea da lotura hori, eskola herriari irekitako gunea baita, non ikasleek eta herritarrek hainbat espazio partekartzen duten; gainera, Udalak du ardura eskolaren inguruko erabakietan. Katalunian, berriz, oraingo ametsa, “egungo egitura administratiboak

oztopatzen duena”.

Horretaz gain, bat datoz eskolak eta inguruneak bat egitean sortzen den emaitza azaltzerakon: eskolak ingurunera egokitu behar du, eta, horrenbestez, aniztasuna egon behar da eskola-ereduetan eta proiektu pedagogikoeetan. Berrero ere, ordea, Finlandian errealitate dena Katalunian oraingo helburu, nahiz eta bidea egiten ari diren.

Eta gu, Euskal Herrian non gaude eredu horiekiko? Bada, urrutiko administrazioek eta komunitate arrotzek erabakitako eskola-ereduen aparretan. LOMCEk iragarritako Lehen Hezkuntzako hirugarren mailarako diagnosi-probak antolatu ditu maiatzean zehar Eusko Jaurlaritzak, eta protestak eta plantoak egin dituzte Euskal Herriko hainbat eskoletan.

Testuinguru horretan, Kataluniako Xarxa de Escoles Insubmises-eko kide Belen Tasconek LOMCE gisako lege arrotzen aurrean desobedientzia egiteaz hitz egin du; eta eskolaren inguruko komunitatearen indarrak, gurasoek eta familiek gidaritzatza eta agintea hartzeaz, ingurunean errotutako eskola-proiektua babesteko.

Eta, ekaitz horren erdian, esaldi bana oparitu digute Leo Pahkin-ek eta Rosa Sensat elkarteko Irene Balaguerrek. Hona bata, Leo Pahkinena: “Garrantzia handia du ebaluazio jarraituak, bestela irakaskuntza guztia azterketa bakarerra mugatuko baikenuke.”

Hona bestea, Rosa Sentat elkarteko kide Irene Balaguerrena: “Lege frankistek ez bagintuzten baldintzatu, nola geldituko gaituzte, bada, oraingo legeek?”



# hizpide

## 58 haur geratu dira euskarazko plazarik gabe Iruñean

Iruñeko Udalak 164 plaza eskaini ditu euskaraz haur-eskoletan, eta 58 haur geratu dira tokirik gabe, % 26 baino gehiago. Arrotxapea auzoan 31 haur geratu dira tokirik gabe eta Txantrean 27. Iruñeko gurasoak aspalditik ari dira eskatzen euskarazko plazen eskaintza handitzeko eta plaza horiek hainbat auzotan banatzeko. Bigarren eskariari dardokionez, orain arte Txantrea auzoan zeuden euskarazko plazak eskaintzen zituzten bi haur-eskolak, eta aurten horietako bat Arrotxapeara eramango dute. Lehengo eskaerari, ordea, entzungor egin dio Udalak. Iaz 164 ziren euskarazko plazak eta aurten ere bai. Gurasoek, baina euskarazko 222 plaza eskatu dituzte.

## Eskolako garraioan lehen-tasuna izango dute zaintza partekatua duten umeek

Eskolako garraioari buruzko dekretu berria onartu du Eusko Jaurlaritzak. Dekretuak baditu berritasun batzuk; autobusean lekua badago, zerbitzua ez dagokienez ere erabili ahalko dute. Kasu horretan, lehen-tasuna izango dute zaintza partekatuko haurrek eta genero indarkeria jasandako andreen umeek. Hala, ikasle guztiek berdintasunezko aukera izaten jarraituko dutela nabarmendu du Eusko Jaurlaritzak.



## Nafarroako eremu ez-euskalduneko gurasoek laguntzak eskatu dituzte euskaraz ikasi ahal izateko

Bertze anitzetan eskatu dutena aldarrikatu dute Nafarroako eremu ez-euskalduneko gurasoek: laguntzak nahi dituzte beren seme-alabak bertze herri batera eramateagatik, euskaraz ikas dezaten. Nafarroako Gobernuan gerta daitekeen aldaketa politikoren harira jarri dute Larragako, Mendigorriako eta Artaxoako gurasoek eskaera mahai gainean, berriz ere: "Lehendabiziko aldiz entzunen gaituztela uste dugu. Bada garaia euskararen legea bertan behera uzteko", dio Mendigorriako Eunate Lopezek.

Hiru alaba ditu Lopezek. Garesa eramaten ditu, egunero, hango ikastetxe publikoan euskaraz ikas dezaten. "Guk nahi dugu gure haurrek herrian bertan izan dezatela aukera euskaraz ikasteko; ezin bada, gutxienez jantokia eta garraioa ordaintzeko laguntza jaso behar dugula uste dugu".

Lopezek gogorarazi duenez, euskararen legea aldatu eta gero, jasota dago eremu ez-euskaldunean euskaraz ikasteko eskubidea. "Baina ez da gauzatu. Aurreko dekretuak daude indarrean. Landa eremuan lerro berriak zabaltzeko hamabost haur behar direla diote eta hori ezinezkoa da". Sortzen-ek babes agertu die eremu ez-euskalduneko gurasoei. "Euskararen legea bertan behera uztea izan dadila gobernu berriaren lehenengo neurria", eskatu du elkarteko kide Sergio Iribarrenek, eta erantsi du, zonifikazioak ez duela zentzurik.

## LOMCEk aurrera darrai

Iazko ikasturte osoa Werten lege erreformaz hizketan pasa ondoren, ikasturte honen hastapenean, LOMCE ezarri zen Lehen Hezkuntzako lehen, hirugarren eta bosgarren mailetan. Ziurgabetasunean eman zitzaion hasiera kurtsoari, informazio argirik gabe eta LOMCEk zekartzan aldaketak zertan nabarmenduko ziren jakin gabe. Hezkuntza erreformak, iskanbila artean, baina, aurrera darrai.

Maiatz hasieran, Nafarroan, eskola guztietan hirugarren mailako azterketak egin ostean, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabaren txanda iritsi da. Eusko Jaurlaritzak ez du berdin jokatu: “proba gisa”, erabaki du 30 ikastetxetan egitea. Eskoletara joan denean, ordea, arazoak izan ditu. Azterketok eragin akademikorik izan ez arren, Ordiziako Jakintza Ikastolan, Gasteizko Salburua eta Arantzabalena eta Sestaoko Markonzagan plan to egin diete azterketei. Guraso gehienek, probaren egunean, ez dituzte umeak eskolara bidali eta Hezkuntza Sailak bertan behera utzi behar izan ditu azterketak. Datozen asteetan gisa berean jokatuko dutela iragarri dute beste hainbat eskolako gurasoek ere.

### Rakingen mamua

Hirugarren mailako azterketen protesten itzalpean, beste proba orokortu bat hasi da prestatzen Espainiako Hezkuntza Ministerioa. Lehen Hezkuntza bukatzerako egingo diete azterketa ikasleei, seigarren mailan, 12 urte-



rekin. Datorren ikasturtean hasiko dira, maiatzean. Ez du izango zuzeneko ondorio akademikorik —gainditzea ez da nahitaezkoa izango aurrera segitzeko—, baina aurreko hirugarren mailan egin dutenak baino eragin handiagoa izango du. Bi arazorengatik: batetik, erkidegoek ez, Madrilgo gobernuak berak egingo du azterketa; bestetik, rankingak egingo dituzte ikasleen emaitzekin. Erkidegoek erabakiko dute zenbateraino zabaldu, eta “familien eskubidea” izango da datuok lortzea.

### 6. mailako probak, 3 alor

Lehen Hezkuntza amaieran egingo duten probak hiru arlo izango ditu: hizkuntzak, zientzia eta matematika. Emaitzekin hiru txosten egingo dituzte: ikaslearena, eskolako eta erkidegoakoa. Eta konparatu egingo dituzte guztiak. Ikastetxeko txostenean, adibidez, azalduko dute eskolak berak eta talde

bakoitzak nolako emaitza lortu duen erkidegoaren batez bestekoarekin alderaturik. Ikasle bakoitzarekin ere berdin egingo dute: norberaren emaitza konparatuko dute taldeko, eskolako eta erkidegoko batez bestekoarekin.

LOMCE legea ezartzeko egutegia zehatz ari da betetzen gobernuak. Lehen Hezkuntzan eta Oinarriko Lanbide Heziketan hasi dira aurreko, eta pauso irmoagoa emango du legeak datorren ikasturtean: Lehen Hezkuntza osora hedatuko dute, eta DBHn eta Batxilergoan hasiko dira ezartzen. Unibertsitatez kanpoko sistema osoan martxan egingo da, beraz.

Datorren udazkenean egingo diren Espainiako Gobernuak hauteskundeetan egon daiteke LOMCE legea bertan behera uzteko aukera, oposizioak hitzartua baitu PPK gehiengoak galtzean erreforma ezerezean utziko duela. Ikusteke dago, ordea, zer gertatuko den.

# hizpide

**Hezi+ ikaskuntza sarea sortu dute: Gipuzkoan eskaintzen diren heziketako jarduera formalen nahiz ez-formalen berri ematen duen plataforma digitala**

Hezi+ Ikaskuntza Sarea (<https://heziplus.eus/>) bizialdi osoko ikaskuntza sustatzeko martxan jarritako ekimena da. Publiko guztiei zuzendutako plataforma parte-hartzailea da eta Gipuzkoako heziketa jarduera guztiak (hitzaldiak, ikastaroak, unibertsitateko graduak zein graduondokoak, lanbide heziketako eskaintza, tailerrak, irteerak...) jasotzen ditu, erabiltzaileei formatzeko, hezteko eta hazteko aukera emanaz.

Hezi+ Ikaskuntza Sarean edozein adinetako pertsoneri zuzenduriko ekimenak aurki daitezke bost kategoriatan sailkatuta: 1. osasuna eta ongizatea (kirola, elikadura, zainketa pertsonala, lehen sorospenak...); 2. kultura (arte, literatura, moda, dantza, ohiturak...); 3. gizartea (enpresa, hezkuntza, pertsonak, hizkuntzak...); 4. teknologia (ingeniaritza, IKTak, bideo-jokoak, informatika...); 5. zientzia eta natura (matematika, psikologia, medikuntza, kimika, ingurugiroa...).

Uneotan plataforma 204 partaidek osatzen dute, baina edonork har dezake parte plataformara heziketarekin loturiko informazioa helaraziz. Horretarako [info@heziplus.eus](mailto:info@heziplus.eus) helbidera idatzi behar da.



**Sormen teknologikoa garatze-ko xedez, Kode Eskolak hainbat tailer eskainiko ditu udan**

Ekainaren 22an hasi eta irailaren 4ra arte, sormen teknologikoa garatzen laguntzeko hainbat tailer antolatu ditu Kode Eskolak, 6 eta 16 urte arteko haur eta gazteentzat. Besteak beste, ondoko tailerrak eskainiko dituzte: irudiekin programatzen, robotak programatzen, minecraft programatzen, bideo-jokoak programatzen eta sortzen, robotika arduinorekin, robotak mugitzen Lego-ekin, web orriak eta blogak sortzen edota animazioak sortzen. Informazio gehiagorako [www.kode-eskola.com/udalab-ideo](http://www.kode-eskola.com/udalab-ideo) webgunera jo daiteke.

**Komiki digitalaren lehiaketa antolatu dute 10 urtetik gorako haur eta gazteentzat**

*Hirurehun* literaturako partaidetza-proiektu teknologikoak komiki digitalen lehiaketa antolatu du 10 urtetik gorako haur eta gazteentzat. Helburua da [www.hirurehun.org](http://www.hirurehun.org) webgunea erabiliz komiki digital bat sortzea. Lanak jasotzeko epemuga urriaren 18an amaituko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, webgune horretan bertan eskura daiteke.



# izango da

## Hik Hasiren Udako Topaketetako hainbat ikastarotan izena eman daiteke oraindik



Hik Hasiren XVI. Udako Topaketetan izena emateko epea amaitu bada ere, hainbat ikastaroan bada oraindik tokia.

**DONOSTIAN:** “Pikler-Loczy: haurra ukitzen dugunean”, “NIK irakastetik BERAK ikastera”, “Gizarte zientziak lantegia”, “Nerabeak eta hezkidetzeta”, “Haurrentzako masajea”, “Pentsamendu autonomoa eta sortzailea komunikazio enpatikoan”, “Alfabetomotrizitatea”, “KAMISHIBAI tailerra”, “Eskola emozionala”, eta “Hezkuntza proiektuak sortzen”, .

**BIZKAIAN:** “Haur Hezkuntzako psikomotrizitate praktika”, “Nola saihestu eta kudeatu eguneroko gatazkak”, “Entrenamentu mentalaz eta ametsak aztertuz, zoriontsu”, eta “Yoga eta kontzentrazio teknikak eskolan”.

Ikastaro horiek betetzen diren arte, matrikulazioa egiteko aukera izango da, [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) wengunearen bitartez. Ikastaro horiek uztailaren 1, 2 eta 3an Donostiako EHUUn, eta Ekintza ikastolan izango dira; uztailaren 6,7 eta 8an berriz, Bilbon, Leioako magisterio eskolan.

## Haur Hezkuntzako jardunaldiak egingo dira ekainaren 25ean Bilbon

Sormena ardatz hartuta, Haur Hezkuntzako jardunaldiak egingo dira ekainaren 25ean Bilboko Juan Crisostomo de Arriaga Musika Kontserbatorioan, 9:00etatik 14:00etara, Eusko Jaurlaritzak eta Berritzegune Nagusiak antolatuta. Besteak beste, Marisol Anguita Lopezek hitzaldia emango du eta hainbat tailer egingo dira bertan.

## Orue eskolak psikomotrizitateko graduondokoa eskainiko du datorren ikasturtean

Zornotzako Orue zentroak Bartzelonako Unibertsitateko IL3rekin kolaborazio hitzarmena sinatu du, eta ondorioz, 2015-2016 ikasturtean psikomotrizitateko graduondokoa eskainiko du. Azken urteetan, psikomotrizitatean trebatu eta espezializatutako profesionalen eskaera gero eta handiagoa dela ikusi ostean, eta etorkizuneko profesionalak trebatzea helburu hartuta, urrats berri bat eman eta arlo horri dagozkion unibertsitateko ikasketak eskaintzea erabaki du Orue eskolak.

Informazio gehiago nahi izanez gero, [www.orueeskola.org](http://www.orueeskola.org) helbidera jo daiteke.

# GAIA

## Rosa Sensat elkarte

*Mende erdia hezkuntza iraultzen*



Lehen planoan Irene Balaguer, atzean Maria Vinuesa eta azken planoan Francina Martí.



## Berrikuntza pedagogikoa xede

**Espainiako diktadurak behartuta, klandestinitatean hasi zen lanean Kataluniako Rosa Sensat elkarteak, 1965ean, helburu argi batekin: hezkuntza-sistema berritzea, edo are gehiago, iraultzea. Hain zuzen, irakasleen formazioa izan zen beraien lehen zeregina, “irakasle-eskola faxistetan ikasitakoa ahazteko.”**

**Ordutik “berrikuntza pedagogikoa” eragiteko jarraitu dute lanean, eta, horretarako, formazioa izan da gerora ere beraien ardatzetako bat; horren adibide dira urtero antolatzen dituzten Udako Topaketa mamitsuak. Horrez gain, hainbat aldizkari pedagogiko argitaratzen dute, Kataluniatik hasi eta Hego Amerikaraino. Mila bazkide eta 500 boluntario baino gehiago ditu elkarteak egun. 50. urteurrenaren harira, Rosa Sensat elkarteak Bartzelonan duen egoitza bisitatu du Hik Hasik.**

# G

“Berrikuntza pedagogikoa”, bi hitz horiexek izan dira Kataluniako Rosa Sensat elkartearen lehendakariak, Irene Balaguerrek, gehien erabili dituenak HIK HASIrekin egon den tartean. Bi hitz, hamaika bizipen eta ekimen gorpuzten dituztenak Balaguerrek ahoskatzean. Izan ere, klandestinitate garaietatik hartzen du parte Rosa Sensat elkarteak. Garai hartan hezkuntza-sistema frankista iraultzea zuten helburu, eta ordutik hona bizi izandako aro eta berritze-prozesu guztietan berrikuntza pedagogikoa sustatzea izan da elkartearen izateko arrazoia. 50 urte egin dituzte aurten zeregin horretan, eta pedagogia gaietan erreferentziazko elkarte bilakatu da.

Sorreran, 1965a hartan, *escoles cooperatives* delakoak ugaltzen ari ziren Katalunian; gurasoek eta irakasleek osatutako kooperatiba gisa antolatzen ziren, Euskal Herrian ikastolek hasitako bidearen pareko, eta beste hezkuntza-eredu bat sustatu nahi zuten, besteak beste katalana hezkuntza-sisteman integratuz. “Berrikuntza gosea zuten guraso eta irakasle haiek, Espainiako Errepublikaren garaiko eskola hartzen zuten erreferentzia gisa, eta deseroso sentitzen ziren eskola frankistan”, Balaguerren esanetan. Baina, irakasle berritzaileen ere hezkuntza-eredu tradizionalak errepikatzen zituzten ezinbestean eta inkontzienteki, irakasle-eskola faxistetan ikasiak baitziren, eta, hori ikusirik, “irakasleak trebatzeko grina piztu zitzairen”. Une eta testuinguru hartan sortu zuten Rosa Sensat elkarteak 7 irakasle ekintzailek: irakasle-eskola berritzailea izango zen, eta XX. mende lehen hamarkadetakoa irakasle eta hezitzaile ospetsuaren omenez hartu zuten Rosa Sensat izena.

Irakasle-eskola hartan, Espainiako Errepublikaren garaian maisu-maistra izandakoen laguntza jaso zuten; eskola berritzearekin benetan konprometitu-

tako jendea zen hori, Balaguerren esanetan. Horrela, goizez *escoles cooperatives* delakoetan irakasle zirenak, arratsaldeetan ikasle bilakatzen ziren Rosa Sensat irakasle-eskolan; Errepublikan irakasle izandako haien ikasle, hain zuzen ere. Hasiera-hasieratik, “berrikuntza pedagogikoa eta gure hizkuntza berreskuratzea eskutik joan ziren, bata gabe bestea ez zela posible uste baikeen, eta gaur egun ere Rosa Sensat elkarteak ezin ditu bata eta bestea bereizita ulertu”.

Irakasle-eskola hartan, lehen ikasgaia honakoa izan ohi zen: “Ordu arte ikasitako guztia *ez-ikastea*, ahaztea”. Horretarako, askotariko gaiak lantzen zituzten, bai hizkuntzarekin zerikusia zutenak bai bestelakoak. Artearekin loturiko ikasgaiak bazuten tokia Rosa Sensat irakasle-eskolan: dantza, musika, adierazpen plastikoak... lantzen zituzten. Bestalde, eskola tradizionalen testuliburuaren erabilera sustatzen zen garai hartan, eta, horri aurre egiteko, Rosa Sensat-en eskola liburutegia eta ikasgelako liburutegia zituzten. Balia-bide horiekin, “ikasleek ikasgai bakoitzaren ikuspegi holistikoa eskuratzea” nahi zuten: liburutegietan eskura zituzten korrante desberdinetako autoreak irakurtzera bultzatzen zituen ikasleak, gai bakoitzaren inguruko ikuspegi anitzak arakatzera, eta ez testuliburu ikuspegi bakarria; modu horretan, ikasle bakoitza ikuspegi propioa osatzeko gai izatea lortu nahi zuten.

Izan ere, “manipulazio handia” zegoen Francoren Erregimenaren alde-tik, batik bat gizarte-zientzietan. Horrela, historia irakasgaian, esaterako, beste ikuspegi bat ematen saiatzen ziren Rosa Sensat irakasle-eskolan. Helburua zen “espiritu kritikoa garatzea”; informatzen, eta informazioa kontrastatzen ikastea, ideia propioak sortzeko gai izan zitezten. Natur zientzietan, aldiz, berrikuntzetara adi egoten saiatzen

# Rosa Sensat elkarte



Rosa Sensat irakasle zena bere ikasle talde batekin.

ziren Rosa Sensat-en; lehen bihotz transplantea eskolan azertu zuten, esaterako.

Hurrengo urtean, 1966an, irakasle-en formazioarekin arduratuta, Rosa Sensat elkarte Udako Topaketak antolatzen hasi zen, gaurdaino iraun dutenak.

## Lehen eraberritzeak eta klandestinitatearen itzala

Hasiera urte haiek “gogorak bezain zoragarriak” izan ziren Balaguerrentzat. Klandestinitatearen itzala luzea zen eta pisuetan elkartzen ziren, ezkutuan, eta ahoz aho zabaltzen zuten beren egitekoa eta mezua; hamarkada bat baino gehiago iraun zuen egoerak. Beretik gogoan dituzte 1969ko Udako Topaketak: “Urte gogorra izan zen. Salbuespen-egoera izendatu zuen Erregimenak, alegia, besteak beste debekatu zegoen bilerak egitea, baita kalean 3 pertsona baino gehiago elkarrekin ibiltzea ere. Eta guk 1.500 pertsona genituen izena emanda Udako Topaketetan. Orduan elizaren laguntza izan genuen, zehazki jesuitena. Haiek utzitako

egoitzetan egin genituen topaketak; poliziaren presioa izan zuten baina babestu egin gintuzten, eta modu horretan egin ahal izan genituen Udako Topaketak.”

Goizean goiz hasten ziren lanean, eta arratsaldeetan eztabaida politikoak antolatzen zituzten: “Klandestinitateko politikariek eta sindikalistek komunikabideetan agertzen ez ziren istorioak kontatzen zizkiguten”. Izan ere, “pedagogia politika da” ideia barneratu zuten, eta, ildo horretatik Rosa Sensat-en konpromiso politikoa “handia, hizki larritan” dela gogorarazten du Irene Balaguerrek. Horren puntu gorena 1965ean, Eskola publiko berri baten alde manifestua argitaratu zutenean iritsi zen; “hor adierazi genuen ezinezkoa zela hezkuntza-politikaririk garatzea testuinguru demokratiko bat izan ezean”.

Argitaratu zuten lehen aldizkari pedagogikoa ere erdi ezkutuan atera behar izan zuten, edo hitz-jolasak erabilita behintzat. *Perspetiva escolar* izeneko aldizkaria argitaratzekoak zirela jakinarazi zioten Gobernuari; bi hitz horiek berdin-berdin idazten dira bai gaztele-

raz bai katalanez. Erregimenak baime-na eman zien argitaratzen hasteko, gaztelerazko aldizkaria zelakoan; horiek ziren, ordea, gaztelerazkotzat har zitezkeen hitz bakarrak aldizkari hartan.

Balaguerrek gogoan du urte haietan “herria aldatuko zuen zerbait egitearen sentsazioa” zutela. Baina, Katalunian ez ezik, berrikuntza pedagogikoa beste eremuetara zabaltzeko ere egin zuten lan: “Beste herrialde edo estatuko eremuetan ere mugimenduak sortzeko lan egin genuen. Ez genuen Rosa Sensat-en bildu nahi Estatuko aldaketa pedagogikoaren gidaritza; tokian tokiko aldaketa mugimenduak sortzen lagundu nahi genuen”. Balaguerrek gogoan duenez, klandestinitatean igarotako hamarkada luze hartan Marta Mata izan zen Rosa Sensat elkartearen ideia nagusien zutabea. “Berak zuen ikuspegi pedagogikoa, bere ideia izan zen praktika nahiz teoria lantzearena, baita mugimendua zabaltzearena ere guk protagonismorik hartu gabe, besteak protagonista izatea bultzatuz”.

Garai hartan Euskal Herriko hezkuntza-mugimenduekin ere etengabeko harremana izan zuten, eta “abergarria” izan zen elkar-trukea. Balaguerrek bereziki gogoan du Euskal Herrian sortutako “Adarra” berrikuntza pedagogikorako mugimendua. “Lehen aldiz aniztasunaren gaia landu zuten, 1981ean. Ordu arte guk ez genuen gaia planteatzen, eta Adarra-ren eraginez, urte hartako Udako Topaketetako gai nagusia izan zen”.

50 urte hauetan sarritan berrikusi behar izan du Rosa Sensat elkarteak bere izaera eta egitekoa, eta lehen aukera 1970ean etorri zitzaion. Izan ere, urte hartan Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa berriz hasi zen lanean, eta Rosa Sensat-eko irakasle askok han topa-



tu zuten lana: “Berrikusi behar izan genuen gure funtzioa, baita formazioarekin modu jarraian segitzea ere”. Erabaki zuten hezkuntza iraultzeko lanean jarraitzea. “Lan egiten genuen hezkuntzaren berrikuntzaren bidez gure herriko errealitatea aldatzeko”, dio Balague-  
rek, “inoiz ez ginen geldirik gelditu”.

### Eta, demokrazian zer?

Demokrazia iritsi eta klandestinitatea uztearekin batera, beste behin beren egitekoa eta izaera berrikusi zituen elkarteak: hausnarketa eta ikerketara jo behar zuten, edo berrikuntza pedagogikoa sustatzen jarraitu? Elkarteak osatzen zuten irakasleen batzarrean erabaki zuten berrikuntza pedagogikoaren bidetik jarraitzea. Bide horretatik, “ziklikoki berplanteatzen” dute beraien jarduna, eta irakasleen beharretara adi egoten saiatzen dira, horiei erantzuteko.

Rosa Sensat-en jarduna hazi eta hedatu baino ez da egin 50 urtetan. Gainera, gaur egun maila eta diziplina guztietako mila irakasle-bazkide ditu Rosa Sensat-ek, eta 500 irakasle boluntario moduan aritzen dira lanean elkartearentzat: “Hor dago gure indarra: irakasle horiek prest daude beste irakasle batzuekin elkartzeko, eztabaidatzeko, debatitzeko eta elkarrekin aurrera egiteko”, dio Balague-  
rek.

Izan ere, parte-hartzailea da Rosa Sensat elkartearen izaera eta egitura. Bazkide guztiek osatzen duten Batzar Orokorrak hartzen ditu erabaki garrantzitsuenak. Urtean behin elkartzen da organo hori eta zuzendaritza-batzordeak egindako proposamenetatik abiatuta egiten du lan; 16 kidek osatzen dute zuzendaritza-batzordea eta gehienak bazkideek aukeratutako ordezkariak dira. Ondoren, exekuzio-komisioari dagokio Batzar Orokorren aginduak



Rosa Sensat elkarteak antolatutako jardueretako bat, aire librean, eskola irekiaren kontzeptuaren bidetik.

indarrean jartzea; hain zuzen, Irene Balague da exekuzio-komisioko kideetako bat, Maria Vinuesa eta Francina Martírekin batera.

Baina, izaera parte-hartzailea nonbait nabaritzen bada, kontseiluetan da. Izan ere, bi dira Rosa Sensat-en jardun-eremuak gaur egun, argitalpenak eta formazioa, eta alor horietako egunerokoa, oinarria, kontseiluek zehazten eta gauzatzen dute; kontseilu horietako bakoitza Rosa Sensat-eko bazkideek nahiz elkartearekin kolaboratzen duten adituek osatzen dute. Ondoren koordinazio pedagogikorako batzarra arduratzen da kontseiluen lana bateratzeaz eta sinergiak baliatzeaz.

Formazioari dagokionez, sorrerako irakasle-eskola haren filosofia go-goan, hezkuntza-etapen eta diziplinen araberrako lantaldeetan aztertzen eta trukatzeko dituzte arlo bakoitzean berrikuntza pedagogikoa eragin dezaketen

gaiak. Maria Vinuesak azaltzen duenez, “irakasleen beharretara adi egoten saiatzen gara; argi daukagu gure azpiegitura beraien zerbitzura jarri behar dugula. Orain gutxi, adibidez, larunbat batean Rosa Sensat-eko Matematikako lantaldeak antolaturiko mintegi batean egon nintzen. 150 irakasle zeuden han bilduta, larunbat goiz batean. Izan ere, ikusi dugu bai Lehen Hezkuntzan bai Bigarren Hezkuntzan matematiketan arazoak ditugula: irakasleek gabeziak dituzte eta formazioa behar dute. Bada, lantalde honetan hausnarketa egin dute, matematiketako irakasleen jarduna nola indartu aztertzeko. Horren harira antolatu zuten mintegi hori, batik bat eztabaidatzeko eta esperientziak trukatzeko”.

18 lantalde daude guztira Rosa Sensat elkartearen formazioaren alorrean; batez beste lantalde bakoitzean 15 lagunek hartzen dute parte, Herrialde

Katalan guztietatik etorritakoek. Lantalde horietako batzuk Rosa Sensat bera baino zaharragoak dira; adibidez, haur eta gazte literaturaren lantaldea. Oro har, balorazio oso positiboa egiten dute lantaldeen jardunaz, baina Bigarren Hezkuntzan, gaikako lantaldeek ondo funtzionatzen badute ere, matematikakoak kasu, zailtasunak dituzte Bigarren Hezkuntzaren ikuspegia landuko duen taldea garatzeko. “Zer gertatzen da institutueta? Horretaz hitz egiteko talde bat osatu nahi genuke, baina zailtasunak ditugu.” Formazioaren eremuan, era berean, Udako Topaketak dira Rosa Sensat elkartearen ekarpen nagusienetarikoa bat.

Elkartearen jardunaren beste zutabe nagusietako bat argitalpenak dira. Egun 6 aldizkari argitaratzen dituzte: *Infància Llatinoamericana*, *Infància Europea*, *Infància Català*, *Temes d'Infància*, *Infància Castellà* eta *Perspectiva Escolar*. Hain zuzen ere *Infància Català* aldizkaritik bidaia pedagogikoak antolatu izan dituzte, 30 baino gehiago European eta munduan barna, formaziorako modu garrantzitsua iruditzen baitzaie. Baina, krisi ekonomikoaren eraginez, bertan behera utzi dute ekimena. Horren ordez, hainbat asteburutan bidaiak egiten dituzte Kataluniako bertako ikastetxeak bisitatzeke.

Eta, jardun honetan guztian, zer eragin dute legeek eta hezkuntza-erreformek? Oztopo ote dira Rosa Sensat-en jardunerako? “Legea inportantea da, bai, baina Frankismoan erakutsi genuen legea ez dela dena. Lege frankistek ez bagintuzten baldintzatu, nola geldituko gaituzte bada orain demokraziako legeek?”, dio Balaguerrek. Izan ere, ez baita erraza 50 urtean metatutako indarra eta berrikuntza-gogoia gelditzea.

## Eta, etorkizunak zer?

Mende erdiak ez dio nekerik ekarri Rosa Sensat elkarteari, eta etorkizunari lanerako gogoz begiratzen diote oraindik. Hain zuzen, 50. urteurrenaren harira, “mundura begirako manifestua” egin nahi dute: “Mundura begira, bai, baina ez mundu mailako erabakietan eragiteko esperantzaz, baizik eta mundu guztian daudelako ondo lan egiten eta pentsatzen duten irakasleak. Mundu guztian daude argi-guneak, itxaropena pizten duten errealitate txikiak, eta horietako bakoitzak jakin behar du ez dagoela bakarrik; jakin behar du, errealitate minoritario bateko kide izanagatik ere, elkarren berri badugu eta batuta bagaude, egunen batean mundua aldatuko dugula. Noiz? Auskalo! Dagoeneko ikasi dugu hainbat prozesu norbanakoaren bizitza baino luzeagoak direla, baina inportanteena da norbanako horietako bakoitza konprometitzea prozesu horren uneren batean”, Balaguerren esanetan. Egindako hausnarketan, 3 ardatzen inguruan irudikatu dute hurrengo urteetako jarduna.

**1.Ekologia:** Hezkuntza, edo irakasleek, ez dute aukerarik bere horretan ekologia baldintzatzen duten makro-erabakietan eragiteko, baina jendartea osatzen duten pertsonetan kontzientzia ekologikoa susta dezakete, “gure ingurune fisikoaren eta kulturalaren artean harmonia” egon dadin. Inguruneaz hitz egitean, hizkuntzetaz eta ekologia-kulturalaz ere mintzo da Rosa Sensat elkarte.

**2.Desberdinkeria edo desparekotasun soziala:** Aberastasuna banatzerakoan, gero eta desoreka handiagoa dago. “Hori ere ez du eskolak aldatuko”, baina hezkuntza-komunitateak lan egin behar du kontzientziak pizteko eta eskola publikoa sustatzeko, horrek bermatuko baitu hezkuntza-eskubidea.

**3.Kulturak:** Azken ardatz honetan, mundu mailako erabakiguneen eta errealitateen testuinguruan eskolak zer funtzio betetzen duen hausnartu dute. Izan ere, makro-testuinguruaren ezaugarri nagusia aniztasuna da; eta, aniztasun horren baitan, aipaturiko desberdinkeriak daude. Rosa Sensat elkarteak sustatzen du komunitate bakoitzak bere testuinguru propiora egokitzen den eskola eraikitzea. Horregatik, uste dute egitura eta antolamendu-eredu desberdinak sortuko direla, eta horiei guztiei oinarri komun sendoa emateko lan egin behar dela. “Eskolak anitza, askotarikoa, berritzailea, umeekin konprometitu eta parte-hartzailea izan behar du. Izan ere, guretzat eskola eta komunitatea gauza bera dira, eskola ezin da bere testuingurutik kanpo ulertu”. Horrenbestez, uste dute gertuko administrazioak eragin zuzena izan behar lukeela bere komunitateko eskola horretan, gaur egungo gure egitura administratiboek halakorik ahalbidetzen ez badute ere.



## Berrikuntzari ekinez ospatuko dute urteurrena

“50 urte bete dituzula eta zeure zilborrera begira jartzea... Agian zuretzat inportantea da 50 urte egitea, baina jendeari antzeko zaio 50 edo 30 egin dituzun. Beraz, ospakizunean baino gehiago pentsatu genuen nolako ekarpena egin behar genion gizarteari urteurrenaren harira”. Modu horretan laburbildu du Francina Martík, Rosa Sensat-en exekuzio-batzordeko kideak, elkartearen mende erdia ospatzeko antolatutako egitarauaren filosofia.

Aipatu bezala, 50. urteurrenaren harira “mundura begirako manifestua” egin nahi dute (ikus aurreko orria) eta hori izango da ekarpen esanguratsuenetarikoa, baina batik bat Udako Topaketetan jarriko dituzte indarrak. Izan ere, “aurten topaketa bereziak egin nahi izan ditugu”, dio Martík. Hainbat izango dira berezitasunak; batetik, normalean 15 egun irauten badute, aurten astebetara mugatu dituzte, uztailearen 1etik 8ra, “edukiak kontzentratzeko”. Bigarrenik, “irekiago” egin nahi izan dituzte, “hein batean, nazioartekoago. Urte hauetan European, Latinoamerikan... izan ditugun kolaboratzaileak gonbidatu ditugu parte-hartzera.” Horregatik, jardunaldiak katalanez, gaztelaniaz eta ingelesez izango dira aurten, aldi bereko itzulpenari esker. Hirugarrenik, topaketak bereziak izango dira jarduerara asko aire librean egingo dituztelako, Bartzelonako Ciutadella parkean eta inguruetan, “inguruneari irekia dagoen eskolaren ideari jarraiki.”

Uztailearen 1ean, *Mugarik gabe* lelopean, gai orokorrak landuko dituzte; hain zuzen ere, urteurrenaren harira argitaratu duten manifestuan (ikus aurreko orria) planteatu dituzten hiru ardatz



Rosa Sensat elkarteak azken 50 urteetan antolaturiko Udako Topaketa batzuetako irudia.

orokorrak landuko dira: Ekologia, Desberdinkeriak eta Kulturak. “Pedagogiaren ikuspegi globalago batetik aritu nahi dugu, ikasgeletako egunerokotik burua altxatuta”. Besteak beste, Uru-guaiko presidente Jose Mujica da etortzekoa, oraindik erabat baieztatu ez badute ere, ekologiaren aritzera; Adrienne Diop senegaldarra, garapen eta genero gaitan aditua, desberdinkeriaz ariko da; eta Philippe Meirieu pedagogo frantziarra, berriz, kulturetz. “Hor aurkezten ditugu gure ustez hezkuntzak mundu mailan izan behar dituen oinarriak”, Martíren esanetan.

Uztailearen 2rako eta 3rako, berriz, hausnartzeko mahai-inguruak antolatu dituzte, *Utopia posible da* lelopean. Izan ere, 2015ean “mundura begirako manifestua” argitaratu badu Rosa Sensat elkarteak, duela hamar urte, 2005ean, “Europara begirako manifestua” eman zuen argitara. Bertan, hainbat ardatz planteatzen ziren, utopia gisa, eta, hamarkada bat geroago, ikusi nahi dute ea ustezko utopia horietatik zein bete diren, eta zeinek dirauten betetzeke; lorpenak esperientzia errealean bidez aurkeztuko dituzte, “utopia gisa planteatu zena egun errealitatea dela” erakusteko.

Uztailearen 4a, berriz, Haur Hezkuntzari eskainiko diote, 0-6urteko hezike-

tari hain zuzen. Azken txanpan “Udako Topaketetako programazio tradizionalari” eutsiko diote, uztailearen 6an, 7an eta 8an. Ahal diren ikastaro eta tailer gehienak aire librean egingo dituzte, “ordenagailu eta powerpoint-ik gabe; eskoletako mahaia, aulkia eta arbela egitura puskatu nahi genuke”. *Truke-rako espazioak* izenburua eman diete jarduerara hauei, “esperientzien eta jakintzen parte-hartzea eta trukea sustatu nahi baititugu”. Guztira 100 ikastaro eta 1.000 tailer baino gehiago egingo dituzte. Egitarau guztia ikusgai dago [www.rosasensat.org](http://www.rosasensat.org) helbidean.

Manifestuaz eta Udako Topaketetz gain, beste bi ekarpen mamitsu egingo dituzte. Batetik, “XX. mendeko 20 emakume pedagogo” liburua ari dira prestatzen, “izenburua oraindik erabat zurrara ez den arren”. Katalunian pedagogiarloan ekarpena egin duten 20 emakumeren soslaiak jasotzen ditu liburua. Bestetik, [www.moltesgraciesmestres.org](http://www.moltesgraciesmestres.org) (eskerrik asko, irakasle) webgunea sortu dute. Bertan, nahi duen orok esker-mezua idatz diezaioke irakasleren bati. Ekimen horren bidez balioa eman nahi diete maisuei eta maistrei, “irakasle anonimoen lana ikusarazi”. Dagoeneko 500 mezu baino gehiago jaso dituzte, “gehienak oso sentikorrak”.

# leo pahkin



## ELKARRIZKETA

Finlandiako Hezkuntza Nazionalako aholkularia

“Eskolek izugarrizko askatasuna dute Finlandian; eskolaren gain uzten dugu erabakitze eta ekiteko ahalmen guztia”



Hik Hasi-k antolatutako "Herri hezitzailea, eskola herritarra" jardunaldietan parte hartu zuen Leo Pahkin Finlandiako Hezkuntza Nazionalako aholkulariak (Juuka, Finlandia, 1966), Finlandiako hezkuntza-sistema azaltzeko. Gertuko kudeaketa, eskolen autonomia, irakasleen prestakuntza altua eta ikasle zein gurasoek profesionalengan jartzen duten konfiantza dira, besteak beste, hango ereduaren arrakastarako giltza. Baina bada, sistemari sostengua ematen dion beste gako bat ere: adostasun politiko erabatekoa dute; "bakoitzaren ideologiaren gainetik, alderdi politiko guztiek garbi daukate Finlandiak aurrera egiteko ezinbestekoa duela hezkuntza-sistema kalitatezkoa izatea".



### **Munduan, daturik onenetarikoak ematen ditu Finlandiako hezkuntza-sistemak. Heziketa modu arrakastatsu horrek non du jatorria?**

60 urte inguru dauzka gaur egun ezagutzen dugun Finlandiako hezkuntza-ereduak. Aurrez, elizaren egitekoak ziren pertsonen alfabetatzea eta heziketa. Gero, pixkanaka, eskolek hartu zuten eginkizun hori, eta, 1950eko hamarraldian, lehen herri-eskolak sortu ziren, hiru oinarri nagusirekin: eskolak eduki eta ezagutza akademikoak eskaini behar ditu; eskulanak eta bestelako sorkuntza-lanak egiteko tokia izan behar du, eta pertsona osoak hezi behar ditu, ikasleen barne-bizitzari garrantzia emanaz. Hiru ezaugarri horiek eskolaren zutabe nagusi izaten jarraitzen dute gaur egun ere.

### **Orain 60 urte jarritako zimenduak ari dira fruituak ematen.**

Bai, PISA eta horrelako probek argi erakusten dute Finlandiako hezkuntzaren arrakasta. Oro har, herritarren hezkuntza-maila eta eskolatzetasa altua da. Helduen artean, gutxienez herenak unibertsitateko maila gainditu du. Europa osoko tasarik altuena da. Zailtasunak dituzten ikasleei laguntzeko, estrategia zehatzak diseinatu ditugu, eta, horren ondorioz, ikasturtea errepikatzen duten ikasleak % 2 dira soilik. Europako ehunekorik baxuena da. Gainera, ia ia ikasle guztiek amaitzen dute Oinarrizko Hezkuntza: porrota % 0,3koa

soilik da. Eta Oinarrizko Hezkuntza amaitutakoan, % 96k jarraitzen du ikasten.

### **Nolakoa da Finlandiako hezkuntza-sistemaren eskema orokorra?**

Finlandiarrak sinpleak gara, eta sinpletasuna gustatzen zaigu. Hezkuntza-sistemaren egitura ere hala-koxea da, sinplea. Eskolatzeta, berez, ez da nahitaezkoa; nahitaezkoa ikaslea da. Oso gutxi, baina badira etxean ikasten duten ikasleak ere. Orain arte, 6 edo 7 urterekin hasten ziren eskolan haurrak, nahieran. Izan ere, Haur Hezkuntzako maila bat zegoen 6 urtekoentzat, aukerakoa. Hurrengo udazkenetik aurrera, berriz, nahitaezkoa izango da. Ikasturte horren ondoren, haurrak 7 urte betetzen dituen urtean, Oinarrizko Hezkuntzari ekiten diote. Baina adin hori atzeratzeko aukera ere badago, garrantzitsuena eskolan hasterako haurra heldutasun-puntu batera iristea baita.

Oinarrizko Hezkuntzak bederatzi urte irauten du, eta, hori amaitzean, ikasleak hautu bat egin behar du Lanbide Heziketaren eta institutuaren artean. Hala ere, bederatzi urteak igarota, ikasleak nahi izanez gero, beste urtebete egin dezake Oinarrizko Hezkuntzan. Oraindik zer egin nahi duten ez dakiten ikasleei zuzentzen zaie bereziki. Nota hobetu nahi duten ikasleek ere tarteko ikasturte hori egin ohi dute.

### **Aukeratzen dituzten ikasketa motei dagokienez, zein dira datuak?**

Gauregun, gutxi gorabehera ikasleen erdiek Lanbide Heziketa hautatzen dute, eta beste erdiek hemengo Batxilergoaren baliokide diren ikasketak. Baina, azkenaldian, gora doa Lanbide Heziketa aukeratzen dutenen kopurua. Gurasoek nahiago dute seme-alabak Batxilergora joatea eta goi-mailako ikasketekin jarraitzea, baina ikasleek eurek ez, haiek nahiago dute Lanbide Heziketa. Eta, gaine-



ra, Lan-  
bide Heziketa  
hautatzeak ez du esan nahi ikasketak horrekin amaituko direnik; Lanbide Heziketa amaitutakoan, ikasleak aukera dauka bai unibertsitatera eta bai goi-mailako eskola teknikoetara joateko. Izan ere, Finlandiako hezkuntza-sistema osoak malgutasun handia du edozein unetan hautatutakoa aldatzeko eta ikasleak bere interesen arabera jokatzeko.

**Eskola bat sortzeko orduan, zer izaten duzue kontuan?**

Betidanik, gure helburuetako bat eskola herritarrengandik hurbil egotea izan da. Eskolak ezin du ikasleengandik urrun egon. Adibidez, egin diren azterketek diotenez, familiek euren bizilekua aukeratzean kontuan izaten duten faktoreetako bat haurtzaindegia eta eskola hurbil izatea da. Gainerakoan, Finlandian udalek erabakitzen dute zenbat eskola jarrieta non. Udalean erabakitzen da haur bakoitza zein eskolara joango den ere. Egia da familiek ere eskola hauta dezaketela, baina gurasoek gertuen duten eskola hautatzen dute ia beti, eskola gehienak antzekoak direlako, hau da, desberdintasun txikiak daudelako eskolen artean eta ia guztietan bermatzen delako kalitatezko heziketa.

**Eskola guztiak publikoak, kalitatezkoak eta doakoak dira Finlandian?**

Finlandian dauden 2.800 eskole-tatik 50 dira pribatuak. Komunitate erlijiosoekin edo pedagogia-eredu

zehatzekin dute zerikusia. Baina, proiektua aurkezten badute eta onartzen bazaie, eskola publikoen antzeko baldintzak izaten dituzte haiek ere.

Gobernua eta udala arduratzen dira eskola guztiei kalitatezko hezkuntza eskaini ahal izateko baliabideak emateaz. Arazoak dituzten eskolak edota hain emaitza onak ematen ez dituztenak baztertu edo ezabatu beharrean, hezkuntzaren kalitatea hobetu ahal izateko laguntza eskaintzen zaie.

Horrenbestez, ikasleentzat nahiz haien familientzat heziketa doakoa da. Eskola ez dute ordaintzen, ezta eskolarako materiala, jangela eta garrarioa ere. Hala ere, ikasle bakoitzeko gastatzen den diru-kopurua baxuagoa da Europako beste herrialde batzuetan baino.

**Hortaz, ikasle guztien aukeraber-  
dintasuna bermatzen duzue, beste  
herrialde batzuek baino diru gutxiago  
gastatuz.**

Guk argi dugu dirua ezin dela oztopo izan inorentzat, eta Finlandiako hezkuntza-sisteman dabilzan haur guztiek aukera berberak izan behar dituztela euren ikaskuntza-prozesuan aurrera egiteko. Horretarako beharrezko baliabide ekonomikoak bideratzen ditugun arren, argi erakutsi dugu hezkuntzan inbertitzen den diruak ez daukala zerikusi zuzenik emaitzekin. Hor dauzkagu PISAren emaitzak: bidezkoak dira, ikasle gehienek lortzen dituzte goi-mailako puntuazioak, eta oso ikasle gutxi emaitza kaxkarrak. Argi dago gehienek baino emaitza hobeak lortzen dituela Finlandiak, ikasle bakoitzeko beste herrialde askok baino diru gutxiago inbertitzen duen arren. Gakoa da nola inbertitzen den diru hori.

**Erreferentziatzeko pertsona eta kideen  
taldea dira Finlandian irakaskuntzaren  
erdigunean jartzen dituzuen  
elementuetako bi.**

“Gurasoek gertuen duten eskola hautatzen dute ia beti, desberdintasun txikiak daudelako eskolen artean eta guztietan bermatzen delako kalitatezko heziketa”


“Eskolatik telefonoak erabat kentzea baino egokiagoa da, ziur asko, ikasketa-prozesurako nola aprobetxatu pentsatzea”



Bai, guk uste dugu pertsonak, aurrera egingo badu, funtsean, bi oinarri sendo eduki behar dituela. Batetik, aldamenean harengan konfiantza eta uste ona izango duen pertsona bat behar du; normalki, helduren bat izaten da, izan daiteke gurasoetako bat, irakaslea edota kiroleko entrenatzailea nahiz astialdiko begiralea. Bestetik, ikasleak talde bateko partaide izateko eta sentitzeko beharra du. Horregatik, garrantzi handia ematen zaio eskolan ikaslea taldekide sentitzeko moduko jarduerak antolatzeari. Adibidez, ikasle talde batek norbaiti kalte egiten badio eta bazterzen hasten bada, argi dugu arazoa ez dela bazterketa egiten edota jasaten ari diren horien bakarrik, guztiona baizik. Hori da kontuan izaten dugun lehen printzipioa. Horregatik, gure ustez, eskola da era horretako gizarte-arazoei aurre egiteko gune aproposena.

### Zertan oinarritzen da finlandiar eskoletako didaktika?

Ikasteko modurik egokiena aurkitzeko orduan, guk bi ezaugarri izaten ditugu kontuan: batetik, ikasleak dagoeneko zer dakien; eta, bestetik, ikasleari egiten zaion proposamena orekatua ote den. Izan ere, ikasleari eginkizun zailegia ematen bazaio, es-tutu egiten da, eta, aldiz, eginkizuna errazegia baldin bada, aspergarria ere gerta liteke. Beraz, irakaslearen eginkizuna da zailtasun-maila egokiko eginkizunak eskaintzea, ez zailegiak, ez errazegiak. Eta, jakina, ikasle bakoitzari egokituak izatea, ikasle guztiak desberdinak baitira. Gainditzeko moduko erronkak proposatzea da egokiena. Ikasleak zailtasuna probatzen du, baina gainditzen duenean eta emaitza ona lortzen duenean sentitzen duen asebetetzea ikaragarria da, eta horrek ikaslea motibatu egiten du. Hurrengoan, segur aski, erronka berriei aurre egiteko gogoz egongo da. Horrek sentsazio ona eragingo dio. Ikasleak egunero horrelako dosi



egoki bat jasotzen badu eta hori ohitura bihurtzen bada, esan dezakegu ikasketa-prozesua ondo doala.

### Zer jokabide hartu duzue teknologia berrien aurrean?

Gurean, adibidez, telefono mugikorren erabilera aspaldi hasi zen eztabaidagai bihurtzen, eta, horren aurrean, zer egin erabaki behar izan genuen. Gaur egun, esan daiteke telefono adimentsuak ez direla soilik tresna edo jostailu gazteentzat; aitzitik, haien lagun bihurtu dira. Horregatik, eskolatik telefonoak erabat kenduko bagenitu, segur aski akats bat egiten ariko ginatke. Hori baino egokiagoa da, ziur asko, ikasketa-

prozesurako nola aprobetxatu pentsatzea.

### Mugikor adimentsua eskolan nola erabili adierazteko adibiderik eman dezakezu?

Adibidez, gorputz-hezkuntzan, naturan orientatzeko jarduerak egite-rakoan. Ikasleak basora joaten dira, eta, basoan, "altxorraren bila" jolasean egiten den antzera, puntu batzuk aurkitu behar dituzte, eta dokumentazio-lana egin behar dute. Gero, ikasleek proba fisikoak jaso behar-rean, nahikoa dute aurkitu beharreko puntuen argazkiak ateratzea eta proban zehar nola ibili diren mugikor bidez dokumentatzea.



**Ikaslearen autonomia ere oso kontuan izaten duzue.**

Badira autonomia-gaitasun ikaragarria daukaten ikasleak, eta badira oso autonomia maila txikia dutenak. Autonomia maila txikia daukanak etengabe eskatzen du irakaslearen edo norbaiten presentzia eta laguntza. Ikasle mota horientzat, egokia izan daiteke irakaslearengan zentratutako ikasketa metodoa. Baina, jakina, autonomia maila altua daukaten ikasleentzat, irakaslea zentroan egotea kaltegarria ere izan daiteke. Horientzat, bestelako moduak bilatu behar dira, askatasun handia utziz eta bakarka nahiz talde-lanean aritzeko bideak irekiz. 70eko hamarralditik hona, azterketa asko egin dira, eta argi geratu da zeinen garrantzitsua den ikasle bakoitzaren autonomia maila horretara egokitzea.

**Eta, horretarako guztirako, zentro bakoitzari autonomia eta boterea ematen dizkiozue.**

Eskolek izugarriko askatasuna dute Finlandian. Eskolaren gain uzten dugu erabakitze eta ekiteko ahalmen guztia. Batetik, eskola bakoitzak bere hezkuntza-proiektua egiten du; bestetik, eskola bakoitzak aukeratzen ditu bere zentroko irakasleak. Hala ere, gidalerro batzuk ematen ditu administrazioak. Nik lan egiten dudan tokian, Hezkuntza Kontseilu Nazionalan, zuzendaritzaren lana da eskolei esparru orientagarri bat eskaintzea. Kontseilu horretan, al-

de batetik, helburu eta eduki nagusiak finkatzen ditugu; eta, bestetik, ikasleei eman beharreko laguntzaren inguruko jarraibide batzuk eskaintzen ditugu, bai eta ebaluaziorako irizpideak ere. Izan ere, ez daukagu azterketa orokorrik, kanpotik eskolak kontrolatu ahal izateko.

**Ebaluazio jarraituan eta ikasketa-prozesuan jartzen duzue arreta, hortaz, emaitzetan baino gehiago.**

Finlandiako hezkuntza-sisteman, garrantzia ematen diogu ebaluazio jarraituari, bestela, irakaskuntza guztia azterketa bakarrera bideratzen baita. Azken batean, guretzat garrantzitsua ez da zer ikasi duten, hau da, edukia, baizik eta ikasketa-prozesua bera. Beste era batera esanda, fokua ez dugu “zer” irakastean jartzen, baizik eta “nola” irakastean. Ikasleak motibatuta dagoenean ikasten du, eta azterketek ikasle batzuegan motibazio apur bat eragiten dute; baina, ikasle gehienek kasuan, motibazioa beste nonbaitetik dator. Beraz, esan daiteke Finlandiako hezkuntza-sistemaren bereizgarrietako bat prozesuan zentratzea dela, eta ez edukietan eta emaitzetan.

**Irakasleak zentroak aukeratzen dituela diozu; baina, era berean, irakasleek ere askatasun handia dute, ezta? Haiengan sinesten da?**

Bai, eta horren erakusle da, adibidez, guk inolako ikuskaritarik ez izatea. Ez daukagu ikuskaririk eskoletara joateko eta irakasleen lana ikuskatzeko. Konfiantza handia, ia erabatekoa, jartzen dugu irakasleengan. Horrek ez du esan nahi irakasleak edo zer gauza egin dezakeenik. Askatasuna ematen diegun moduan, erantzukizuna ere eskatzen diegu. Izan ere, ikasgela bakoitzean 20 “ikuskeri” edo gehiago daude, eta, gustura ez badaude, esan egingo dute, etxean gurasoei edo eskolan bertan irakasleei esango digute.

“ Ez daukagu ikuskaririk eskoletara joateko eta irakasleen lana ikuskatzeko. Konfiantza handia, ia erabateko, jartzen dugu irakasleengan ”

“ Eskola ez bada gizartearen aldaketetara egokitzen, eskola errealitatetik bereizita geratzeko arriskua dago ”

Guretzat, oso garrantzitsua da irakasleez fidatzea. Ez aritzea atzetik presioa egiten eta eskua gehiegi sartzten. Eta konfiantzarena ez da hezkuntza-arloan soilik gertatzen; aitzitik, finlandiar kulturaren oso errotuta dagoen ezaugarri bat da.

### **Irakasleen puntako prestakuntzaren ondorioz ere ezaguna da Finlandia.**

Irakasleen prestakuntza unibertsitatean egiten da, eta 5 urte irauten du oinarritzakoak; irakasle espezializatuenak (irakasgaietakoak), 6 urte. Ateratzen direnean, gutxienez mastera egina izaten dute. 1979tik dago ezarrita irakasleen prestakuntza mailakaltua izan behar duela. Beraz, duela 30 urtetik baino gehiagotik ari dira Finlandiako unibertsitateetan irakasleak goi mailako prestakuntza jasotzen. Eta, orain, erabaki egokia izan zela ikusi da, gaur egun oraindik ere maisu-maistrena estatus eta prestigio handia duen lanbidea baita Finlandian. Ikasleek ere konfiantza handia jartzen dute irakasleengan. Konfiantza daukate irakasleek hezkuntza egokia eta ona emango dietela. Horrek gobernutik irakasleei askatasuna ematea errazten du. Badakigu lana ondo egiten dutela eta hezkuntza kalitatezkoa izango dela.

### **Finlandiarren % 6ren lehen hizkuntza suediera denez, finlandiera nahiz suediera, biak hartzen dituzue ama-hizkuntzat, eta ikasleek eskoletan biak ikasten dituzte.**

Suediera ama-hizkuntza dutenak gutxiengoa izan arren, eskubide guztiak daukate bermatuta Haur Hezkuntzatik hasi eta unibertsitate mailaraino. Suomiera edo finlandiera ikasten dute, bigarren ama-hizkuntza modura. Baina alderantziz ere berdin gertatzen da, suomieradun finlandiar guztiak ikasten dute suediera bigarren hizkuntza modura, guretzat funtsezkoa baita suediera jakitea, eskandinaviar herrialdeen komunitateko



parte izateko. Azken batean, Finlandia herrialde elebiduna da; baina, bi hizkuntza horiez gain, hirugarren hizkuntza ere ikasten dute ikasleek. Normalean ingelesa izan ohi da, baina izan liteke besteren bat ere.

### **Hizkuntzen ikaskuntzari ez ezik, elebitasunari ere garrantzia handia ematen diozue, beraz.**

Ikerketa askok erakutsi dute irakaskuntza elebidunak —eta ez elebitasunaz, baizik eta hirueletasunaz hitz egin beharko litzateke gure kasuan— ikaskuntza-prozesua eta maila hobetzen dituela. Guretzat, hizkuntzak ikastea oso-oso garrantzitsua da. Suomiera da gure identitatearen oinarri. Baina gu hiztun gutxi gara, eta, gainera, ingurukoekin zerikusi gutxi duen hizkuntza da gurea. Horrexegatik, beste herrialdeekin harremanean egoteko, ezinbestekoa zaigu beste hizkuntzak ikastea.

### **Eskolak beste erronka bat ere badu Finlandian: lan-arloa.**

Mundua azkar ari da aldatzen, eta lehen balio zuten gaitasunek orain ez dute balio beharbada. Beraz, eskolak aldaketa horietara egokitzen asmatu behar du. Horrek esan nahi du batzuetan kristalezko bola batekin bezala lan egin behar dugula: etorkizuneko lan-ildo berri horiek nondik joan daitezkeen asmatzen saiatu behar dugu, eta horren arabera moldatu behar dugu eskolaren norabidea. Gero lanposturik egongo ez bada, ez du merezi ildo horretan indar gehiegi jartzeari.

### **Eskola gizarteko premietara egokitzearen aldekoa zara, beraz.**

Eskola ez bada gizartearen aldatetara egokitzen, eskola errealitate-tik bereizita geratzeko arriskua dago. Hori oso kaltegarria izan liteke, eskolan bizi dutena eta kalean bizi dutena bi gauza desberdin direla konturatzen baitira ikasleak.





**Eskola barruko antolamendura jauzi eginez, espazioari eta denborari garrantzia handia ematen diezue.**

Bai, izan ere, sormenaren gainean ikerketak egiten dituzten adituek diote sormena bultzatzeko bi oinarri behar direla: batetik, lekua, eta, bestetik, denbora. Espazioari dagokionez, sormenari lekua egingo badiogu, horrek esan nahi du ezin dugula elkarren gainean egon. Denborari dagokionez, berriz, kontuan izan behar da ikasle bakoitza desberdina dela, eta, beraz, denbora-tarte desberdina behar duela gauza bera egiteko. Hortaz, eskolaren helburua zein den galdetu behar genuke: elkarren berdinak diren pertsonak lortzea, edo desberdintasuna eta aniztasuna bultzatuko dituen hezkuntza-sistema egitea. Eta, gizarte hobe lortu nahi badugu, iruditzen zait bigarren aukeraren alde egin behar dugula.

**Gaur egungo gizartearen ezaugarrietako bat ziurgabetasuna da, eta horrek ere zaildu egiten du eskolaren egitekoa. Nola kudeatzen duzue hori Finlandian?**

Hainbat faktorek zailtasunak sortzen dituzte eskolaren eta gizartearen arteko harremanean. Horietako bat ikasleek bizi duten ziurgabetasuna da: etorkizuna nolakoa izango den ez badakit, zer ikasiko dut? Zer egingo dut? Beste faktore bat gaur egungo ikasleen denbora-falta da, eskolaz gain, denbora eskatzen duten beste zeregin asko baitituzte: kirola, den-

bora libre, sareko jolasak... Eta, azkenik, norbanakoaren eta taldearen arteko harreman horretan, gero eta gehiago jotzen dugu individualismo-ra, eta horrek ere arazoak sortzen ditu. “Zer naiz ni?” edo “zer presio jasaten dut gizartetik?”; horrelako auziek ere zaildu egiten dute egoera; edo, gutxienez, duela 10-15 urte baino gaitzagoa da gazteen egoera gaur egun. Horren erakusleetako bat gazteen egonezina da. Eta, jakina, pertsona barrutik ondo ez badago, bakean ez badago, ia alferrik da hezkuntzaz edo edukiez hitz egitea. Horregatik, kanpoko faktore horiek guztiak ikaslearen duten eragina ere kontuan izaten dugu.

**Beraz, eskolaz kanpoko ikasleen bizitzak pisua du ikasgelan.**

Batetik, konturatu gara eskola ez dela haurrentzako ikasleku nagusia. Beste toki horietan, agian ez dute ikasiko guk eskolan irakasten dieguna, baina oso gauza garrantzitsuak dira haiek bizitzan aurrera egin dezaten. Hortaz, eskolaz kanpoko jardun horretatik, eskolara eramateko jarraibideak har ditzakegu, garrantzitsua izan baitaiteke hori ere, ikasleek euren gaitasunak garatzeko.

Finlandian, hurrek eta gazteek ordu asko ematen dituzte helduen presentziarik gabe beren artean jolasean, hizketan edo ekinean, eta elkarrengandik ikasten dute. Hortaz, gure erronkak zera izan behar luke: zer egin dezakegu ikasketa modu hori eskolara ekartzeko? Ateratzen dugun ondorioetako bat zera da: ez da komeni gelan ikasleak mailaren eta adinaren arabera sailkatzea; hobe da denak batera interakzioan aritzea. Adinaren edo mailaren arabera sailkatzete mota hori desagerraraztea litzateke helburua. Adinen arabera segregazio hori jadanik zaharkituta geratzen ari da, eta iraganeko sistematzat jo dezakegu.

“ Finlandian, hurrek eta gazteek ordu asko ematen dituzte helduen presentziarik gabe beren artean jolasean, hizketan edo ekinean, eta elkarrengandik ikasten dute ”

“ 1979an, hezkuntza Finlandiako funtzionamenduaren erdigunean jartzea erabaki zen, eta erabaki hark indarrean dirau oraindik ”

## Zer egin daiteke eskolan giro egokia sortzeko?

Gure ustez, oso garrantzitsua da ikasleak bera ere taldeko kide onartua dela sentitzea, eta, era berean, garrantzitsua da norbera ere gai izatea besteak onartzeko. Zentzu horretan, ikasleek benetako pertsona direla sentitu behar dute. Ezin ditugu gauzak balira bezala tratatu, ezta bezero modura ere. Hein batean, sinplea da: etxean bezala sentitu behar dute.

## Eskolan etxean bezala sentitzea... ez du samurra ematen.

Goazen Finlandiako etxeetara, eta begira dezagun zer dagoen han: landareak daude, alfonbrak daude, lanparak daude, apaingarriak daude... Finlandian, oinetakoak atarian uzten ditugu etxera sartu aurretik, eta berdinean egiten dugu eskoletan ere. Baina, aldi berean, eskolaren forma eta estetika tradizionalatik urruntzea eta berriak sortzea ere bada helburua.

## Espazio fisikoaren antolaketari begira, egia da herrixken antza dutela Finlandiako eskolek?

Bai, herri txikien gisara daude antolatuta. Areto handiak eta txikiak uzartzen dira. Erdialdean, guztiek partekatzen dituzten espazioak daude: jantokia, denbora librerako gunak... Herriko plazaren funtzioa betetzen du. Helburua adin guztietako ikasleen topaleku izatea da, nagusien eta txikien arteko topaleku. Kasu askotan, gainera, beirazko pareta gardenak daude espazio horien artean, geletatik plaza ikusteko eta alderantziz.

Horrez gain, eskola bada auzoko edo herriko biztanleen topaleku ere. Zenbait zentro berritan, ikasgelez gain, jatetxea, liburutegia, kiroldegia, antzokia... ere eraiki dituzte. Ikasleez gain, beste herritarrek ere erabiltzen dituzte horiek. Komunitatera irekia dago eskola, eta komunitateak eskolan parte hartzen du. Nolabaiteko gi-

zarte-zentroen funtzioa betetzen dute, eta eskolako ordutegiak kanpo ere erabili egiten dira.

## Aipatu duzun guztia posible izan dadin, adostasun politikoa ere beharrezkoa izango da.

1979an, hezkuntza Finlandiako funtzionamenduaren erdigunean jartzeari hitzartu zen, eta erabaki hark indarrean dirau oraindik. Gure sistema politikoa oso zabala da. Hauteskundeak dira laster; baina, orain arte, gobernuak sei alderdik osatu dute; legebiltzarra, berriz, bederatzi alderdik. Jakina da bakoitzak bere ideologia duela, baina hezkuntza-gaietan adostasun-maila handia daukagu. Alderdi politiko guztiek garbi daukate Finlandiak aurrera egiteko ezinbestekoa duela hezkuntza-sistema kalitatezkoa izatea. Finlandian, eskola ez dago beste erakundeen gainetik, ez azpitik, guztien erdian dago. •

# HEZKUNTZA MASTERRAK

Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan (EKOMU)



Berrikuntza Didaktiko eta Metodologikoko Proiektuen Garapena eta Kudeaketa Hezkuntza Erakundeetan (BERRIMET)



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan Irakasle Gisa Aritzeko Trebakuntza

[www.mondragon.edu/unibertsitatemasterrak](http://www.mondragon.edu/unibertsitatemasterrak)



HUMANITATE ETA  
HEZKUNTZA ZIENTZIEN  
FAKULTATEA  
FACULTAD DE  
HUMANIDADES Y  
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

INFORMAZIO SAIOA

ESKORIATZA

EKAINAK 18, OSTEGUNA, 18:00etan



# LOMCEri ez, Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki

Belen Tascón, Kataluniako Xarxa de Escoles Insubmises mugimenduko kidea

**“Badaude obeditu ezin diren legeak, maltzurak direlako, eta lege horiek desobeditu egin behar dira; LOMCEk lerro gorria zeharkatu du”**

LOMCEren aurrean intsumiso deklarazioa erabaki dute Kataluniako 300 familia baino gehiagok. Belen Tascón-ek, Xarxa de Escoles Insubmises-eko (Escola Intsumituen Sarea) kidea, azaldu du zergatik eta zertarako egin diren intsumiso, Hezkuntza Plataformen Topaguneak gonbidatuta Durangon emandako hitzaldian. Tascónen hitzetan, “badaude obeditu ezin diren legeak, maltzurak direlako, eta lege horiek desobeditu egin behar dira. LOMCEekin, zehazki, lerro gorria zeharkatu dute eta ‘honaino iritsi gara’ esan dugu gurasoek, ez gaude prest lege horri men egiteko”. Hain zuzen ere maiatz honetan izan dute lehen pulstu garrantzitsua administrazioarekin: Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleek diagnostiko-probak egin behar zituzten egunetan, gurasoek ez dituzte euren seme-alabak eskolara eramanez, azterketari planto eginez.

Baina, LOMCEk ez ezik, 2010etik hona hezkuntzan izandako murrizketek ere bultzatu zituzten gurasoak Xarxa-n antolatzen. Izan ere, 2010-2014 artean, hezkuntzara bideraturiko aurre-



kontua “ia laurdenean” jaitsi zen Katalunian. Eta aurrekontuarekin batera, ikastetxe bakoitzaren baliabideak: irakasle gutxiago dituzte ikasgai berberak emateko, psikopedagogoak hilean pare bat arratsaldez etortzen dira orain, haur hezkuntzako teknikariak desagertu egin dira...

Eta, panorama horren erdian, 2013an Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasle batek LOMCE zer zen azaltzeko hitzaldia eman zien Tascóni eta beste hainbat gurasori Bartzelonako Grazia auzoko beraien ikastetxe publikoan: “Legea serio zihola eta gure seme-alaben heziketan ondorio oso maltzurak izan zitzakeela ikusi genuen, zer eta jasaten ari ginen murrizketa guztien erdian. LOMCE Ibez 35, OPD eta Apezpiku-kontseiluaren neurria eginda dagoela ohartu ginen”.

Hori ikusirik, Grazia auzoko gainerrako eskolekin harremanetan jarri eta hainbat ikastetxetan itxialdia egiteko antolatu ziren. “Familiak oso errotuta gaude auzoan eta mugimendu handia dago. Itxialdian, gainera, gure artean giro oso ona sortu zen, eta sarea osatzen hasi ginen gurasoen eta ikastetxeen artean. 15M mugimenduaren harira hezkuntza gaien inguruan sortu ziren Bazar horiekin ere jarri ginen harremanetan, baita AMPA edo Ikasleen Gurasoen Elkartearekin ere. Horiek aholkularitza juridikoa eskaini ziguten eta



# 9 arguments per dir no a les proves de tercer de primària

- #1 Selecció prematura
- #2 Rànking i rivalitat
- #3 Regressió pedagògica
- #4 Sense pressupost
- #5 Involució i finalisme
- #6 Desconfiança i control
- #7 Perversitat
- #8 Ineficàcia demostrada
- #9 Imposició

Refusa les proves de tercer de primària. Més info a [www.mobilizomoi.net](http://www.mobilizomoi.net)



Xarxa taldeko kideek LH 3ko diagnostiko-proben aurka sortu duten karteletako bat. Xarxa de Escoles Insubmises

erresistentzia aktiboaren eskuliburu bat eman ziguten. Baina guk pauso bat harago joan nahi genuen: intsumiso deklaratu ginen.” Horrela, 2014ko maiatzean aurkeztu zuten Xarxa de Escoles Insubmises-eko (Eskola Intsumituen Sarea).

Ekintzak ikusgarriak eta eraginkorrak izateko sareak indartsua eta jendetsua izan behar zuela ikusirik, lehen zeregina Xarxa-ra indarrak batu zitzaizkiren ikastetxeekin eta gurasoekin hitz egitea izan da. Baliabiderik ez zutenez, ahoz ahokoa eta sare-sozialak izan dira beraien mezua zabaltzeko bide nagusiak.

## Informazio nahasia ikastetxeetan

Ikastetxe eta guraso askoren artean, ordea, “desinformazio handia” aurkitu dute, eta horretan Generalitat-eko Hezkuntza Kontseiluak zerikusi handia izan duela uste dute. “Katalunian dialektika handia egon da 2002an onartu zen Kataluniako Hezkuntza Legearen eta Espainiako Gobernuak indarrean jarri duen LOMCE legearen aurrean. Gure kultura eta hizkuntzaren aurkako eraso gisa aurkeztu du LOMCE Generalitat-ak, eta horretan denok ados gaude. Baina lege-

ak baditu beste ondorio maltzur batzuk ere”.

Izan ere, batetik katalanak hezkuntzako komunikazio-hizkuntza edo *lingua francagisa* duen pisua galduko luke LOMCEekin, eta “hori oso larria da, katalana elkarbizitzarako tresna oso garrantzitsua baita Katalunian.” Baina, “LOMCEren beste ondorio maltzurak” ere oso gogoan dituzte; besteak beste, erlijio ikasgaiak hartu duen pisua, gurasoek hezkuntza-komunitatean parte hartzea ahalbidetzen duten eskola-kontseiluaren desagertzea, sormena sustatzen duten hainbat ikasgai kendu izana... Eta, Tascónen iritziz, Generalitateak die aurre egin LOMCEren gainerako neurri horiei, “eta, gainera esan du ez dela ezer gertatzen, lasai egoteko, ez dela ezer aldatuko”. Tascónen ustez, hori “ez da egia eta, gainera, nahasmena sortu du guraso eta irakasleen artean”.

Diagnostiko-probekin hori bera gertatu dela uste du Tascónek. Izan ere, Kataluniako 2002ko Hezkuntza Legeak aurreikusten zituen diagnostiko-probak Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailetan, baina, Tascónen esanetan,

“ez dute zerikusirik LOMCEk proposatzen dituen probekin, Generalitateak uste hori bultzatu badu ere”. Izan ere, orain arteko proba ez zen berdina ikastetxe guztientzat, eta, beraz, ikastetxe bakoitza bere proiektu pedagogikoaren neurriara ebaluatu zitekeen; orain, aldiz, proba berdina gainditu beharko dute haur guztiek, eta Tascónen arte horrek ez du zerikusirik orain arte egiten zen diagnostikoarekin. “Gure haurren eskolan proiektu antolatuta egiten dute lan, eta, haur bakoitzaren garapeneraren inguruko ebaluazioak etengabeak izan arren, haurra ez da jabetzen ebaluatua izaten ari denik; orain bada ezpada erakutsi egin behar izan die test bat nola erantzuten den.” Alde horretatik, diagnostiko-probek “hezkuntza-eredu desberdinak neutralizatzea” ekarriko duela uste du. Gainera, “8 urterekin jada ikasle onak eta txarrak bereizten hastea maltzurra” iruditzen zaio Tascóni.

Gauzak horrela, Tascónek “postu-rea” leporatu zion Generalitatari: “Publikoki esaten dute LOMCEren kontra daudela, baina gero bete-betean jarri dute indarrean. Bazuten aukera Katalu-

niako Hezkuntza Legea aldatuz LOMCEn ondorioak eta kalteak arintzeko, edo LOMCE bera errekurritzeko, baina ez dute horrelakorik egin. Apustu bat dela uste dugu, gure politikarien ohiko leloa baita 'Madriletik etorri da' esan eta ardura gaineratik kentzea."

Gainera, Kataluniako Hezkuntza Legearen arabera, proben emaitzak ikastetxe bakoitzarentzat ziren, zer hobetu eta zer indartu aztertzeko, baina orain LOMCerekin, emaitzak publiko egingo dira. Murrizketen testuinguruan ikastetxeak baliabideak lortzeko elkarren artean borrokan ari direnean, Tascónek ez du uste onuragarria denik emaitzak publiko egitea: "Inork ez du argazkian gaizki gelditu nahi, matrikulazioetan eragina izan dezakeelako eta, ondorioz, baita ikastetxe horrek izango dituen baliabideetan ere. Zenbait irakaslek arriskuan ikus ditzakete beraien postuak, eta beldur horretaz baliatzen da administrazioa".

### Gurasoen gidaritzak

Hain zuzen ere zuzendaritzak eta irakasleek, batik bat ikastetxe publikoetan, administrazioaren zigorren beldur egon daitezkeenez, Tascónek garrantzitsutzat jo zuen gurasoek hartzea LOMCEn aurkako mugimenduen gidaritzak, beti ere ikastetxeekin eta irakasle-klaustroen "konplizitate" bilatuz. Eta, diagnostiko-probak egiteko ordua iritsi denean izan dute eskema hori gauzatzeko aukera: "Familiak izan behar dugu haurrak eramaten ez ditugunak eskola diagnostiko-probak egingo diren egunetan. Ikastetxeak proba egunak antolatu eta egin egin behar ditu, eta gurasoon erabakia izan behar da haurrak egun horretan eskolara ez eramatea. Modu horretan, eskolari ezin dio eragin, gurasoon ekintza izan baita". Izan ere, ikastetxeek Generalitataren aldetik "mehatxuak" jaso dituztela dio Tascónek, "gaztelerazko lerroa irekitzera behartuko dituztela esanez, edo lan askorekin eraikitako proiektu pedagogikoa bertan behera utzi beharko du-



tela mehatxu eginez".

Gurasoak, aldiz, Generalitataren mehatxuetatik libre daudela uste du Tascónek: "Zer egin diezagukete, bada? Gure haurrei espedientean puntu bat kendu diagnostiko proba ez egiteagatik? Hori egiten badute, aurrez aurre aurkituko gaituzte, LOMCE legeak ez baitu horrelakorik aurreikusten. Baina, dena dela, uste dugu hori dela gerta dargiguen txarrena. Aholkulari juridikoen gomendatu digute "familia arrazoiak" aurkezteko haurra eskolara ez eramateko argudio gisa, eta, kasu horretan, ez omen da beharrezkoa bestelako azalpenik ematea."

Bada, gauzak horrela, diagnostiko-proben aurrean plantoa egin dute maiatzean zehar Xarxa-ko hainbat eskoletan. Tascónek seme-alaben eskolan, esaterako, zuzendaritzak jakinarazi zien maiatzaren 11n, 12an eta 13an egingo zirela LH 3ko diagnostiko-probak, eta, aurrez jakinda, antolatzeko aukera izan dute. Hainbat gurasok lanean opor-egunak hartu zituzten, tartean Tascón berak, eta maiatzaren 11n, esaterako, bere semearen gelako 25 ikasleak hartu eta museora joan ziren Tascón eta beste hainbat guraso. Marrazketa, dantza, eta beste hainbat espresio artistiko landu dituzte haurrek probak egiten egon behar zuten egunetan, gurasoekin.

Beste hainbat eskolatan, ordea, zuzendaritzak ez die gurasoei jakinarazi noiz egingo dituzten probak; beste ikastetxe batzuk, berriz, 15 egunetan

zehar egingo dituzte probak, egunero zati bat. Kasu horietan, zailago izan dute plantoa egiteko antolatzea. "Edozein gurasok ezin ditu 15 eguneko oporrak hartu haurrekin etxean gelditzeko; kasu horietan, behintzat saiatu dira egun batean edo bestean zerbait antolaten, eta lortu dute behintzat haurrek proba osorik ez egitea".

Intsumisioa ez da mugatzen diagnostiko probei egindako plantora, dena dela; bestelako proposamen zehatzak ere badituzte. Besteak beste, eskoletako komunikazio-hizkuntza katalana izaten jarraitzea eskatzen dute, eta horren aldeko ekintza ugari egin dute. Horrekin batera, eskatu dute eskola-kontseiluak mantzentzea, horiek baitira hezkuntza-komunitatean gurasoen parte-hartzea bermatzen duten organo bakarrak. Hori gauzatzeko intsumisio-ekintza zehatza proposatu dute: ikastetxeetako zuzendaritzari eskatu diete kontseilu horiek indarrean mantentzeko, eta aintzat hartzeko eta betetzeko bertan erabakitzen dena.

### Familiek zer?

Mobilizazio orokorre zehar, zer egin dezakete familiek beren aldetik egoera honen aurrean? Xarxa sareko kideek eskaera zehatzak egin dizkiete familie: haurrak ez matrikulatzeko erlijio irakasgaien, ezta gaztelaniazko ereduaren ere; eta, bereziki, diagnostiko-probak diren egunetan haurra ez eramateko ikastetxera. Izan ere, "LOMCE da lerro gorria, ez dugu zeharkatuko". •



@Gaztezulo

22€  
urtean



# harpidetu!

*eta jaso GAZTEZULO  
zauden lekuan zaudela!*



Tel.: 943 457 250  
harpidetza@gaztezulo.eus

**gaztezulo** ENS  
NI ETA NIKE MUNDUAK





# 0-3. Hezitzaileen formazioa

Tailerren garrantzia / Ana Araujo, Iruñeko Egunsenti haur-eskola

**“Proposamen bat eramaten dugu tailerrera, eta hortik aurrera gertatuko dena haurraren esku gelditzen da”**

Hik Hasiren formazio-zikloko saioetako bat Elizondon egin dute maiatzean, eta, bertan, Iruñeko Egunsenti haur-eskolan tailerretan egiten duten lana azaldu du Ana Araujo, Egunsentiko hezitzaileak. Bere esanetan, tailerrak ez dira espazio isolatuak haur-eskolaren baitan, “proiektu pedagogiko orokorrago baten baitan” ulertu behar diren espazioak baizik; hain zuzen ere, Loris Malaguzzi pedagogo italiarraren filosofiak alor honetan egindako ekarpena nabarmendu zuen. Tailerretara “proposamenak” eraman behar dira, Araujoren eanetan, ez ariketa zehatzak. Bestalde, tailerreko lana eraginkorra izateko eta hobetzeko, dokumentazio-lana nola egiten duten azaldu zuen.

“Bizitza osoa” darama hezitzaile lanean Ana Araujo, 33 urte inguru, eta ia hasieratik Loris Malaguzzi pedagogo italiarraren filosofiaren harira garatutako proiektu pedagogiko baten baitan egin du lan; izan ere, bera lanean hasi eta gutxira Malaguzzi Iruñean izan zen, eta harrezkero hainbat bisita egin ditu Araujok berak Italiara. Malaguzziren ikasgaiei jarraituz, tailerrak dituzte sortuak Iruñeko Egunsenti



Ana Araujo.

haur-eskolan, eta horien funtzionamendua azaldu du Araujok Hik Hasiren formazio-zikloaren baitan Elizondon egin duten saioan.

### **Proposamenetik sormenera**

Zeregin zehatzak baino, “proposamenak” eramaten ditu Araujok Egunsentian duten tailerrera; bikote pedagogikok lan egiten dutenez, aukera

dute haurrak banatu eta talde txikietan aritzeko tailerretan. Araujok aurrez prestatu duen material jakin bat eman edo jolas bat proposatzen die haurrei, eta hortik aurrera “haurrek nola interpretatzen duten eta zer aterako den... haurren esku dago. Askotan ez da ateratzen zuk aurreikusten duzuna, baina ulertu eta, batez ere, onartu egin behar duzu”. Izan ere, gainerakoan “fitxak egiten jarraitzea bezala litzateke, guk gidatua eta helburu jakin batzuen baitan; bakarrik fitxak erabili beharrean, material atseginagoak erabilia”. Beraz, aukera anitzak ematen dituzten proposamenak egitea gomendatzen du Araujok, “ez gauza jakin bat egiteko, gauza diferenteak egin ahal izateko proposamenak baizik”.

Modu horretan, joku sinbolikoa, sormena eta haurraren autonomia lantzen dituzte, eta, bide horretan, tailerretan erabiliko dituzten materialen aukeraketak garrantzia handia du Araujorentzat. “Eskola zertarako da? Besteak beste, autonomia lortzeko

eta harremanak errazteko. Eta hori da inportanteena, harremanak eta gorputza ezagutzea. Eta materialek horretan lagundu behar dute”, bere esanetan. Gauzak horrela, harea, egurra edo buztina bezalako material organikoak erabiltzen dituzte, hainbat formatan. Dena dela, bestelako materialak ere badute tokirik. Esaterako, patioan pneumatiko handiak daude, eta hurrek mila erabilera ematen diete, baita Araujoren ikasgelan dauden burnizko kate txikiek ere.

Organikoak edo ez, hurrei emandako material eta objektu horiek ez dute funtzio edo zeregin jakin bat, haurrak berak eman behar dio erabilera bat objektu edo material horri, nahieran: “Ez dakizu zeinen ongi jolasten duten, eta zer gauza politak eta desberdinak egiten dituzten”.

Bestalde, goputza ezagutzeko bideetik, tailerra ez dago pentsatua “eserita egoteko”. Izan ere, Araujoren arabera, ezin da gorputza egiten ari diren ekintzatik aparte utzi: hurrek ez dute margotzen eskuarekin; margotzean, gorputz guztia erabiltzen dute. “Ezin dugu pentsatu egongo direla eserita, geldirik, eta eskua mugituz margotuko dutela. Txikitan, zerbait ezagutzeko gorputzetik pasa behar da”.

### Argiarekin jolasean

Tailer orokorraz aparte, badute beste espazio berezi bat Egunsentian: argi-tailerra. Zapi zuri bat dago tailerraren erdian, eta alde batean proiektore bat. Hezitzaileak proiektorearen bidez kolore eta forma anitzak sortzen ditu gelan, txikien gozamenerako.

“Ikasgai desberdinak lantzeko” erabiltzen dute argi-tailerra, “besteak beste fisika kontutxo batzuk”, baina ikasgaia baino, bizipena da Araujorentzat garrantzitsuena: “Haur batzuk kolorearekin eta formarekin bakarrik gelditzen dira; zapi zuriaren alde ba-



Ana Araujo, Hik Hasiren formazio-zikloaren baitan Elizondon emaniko saioan.

tera eta bestera ibiltzen dira, gustura, beste ondorioz atera gabe, soilik esperimentatzen. Baina badaude oso oso urruti iristen diren haurrak ere”. Hain zuzen ere, zapien ikusten zituen formak eta koloreak proiektorean pausatutako objektuak sortzen zituela jabetu zen hurretako bat, eta Anak oraindik gogoan du haurraren harri-dura eta lorpen aurpegia. “Une hori zoragarri izan zen. Zapien ikusten zuten objektu bat, baina proiektorera hurbildu eta objektu bera eskuekin uki zezakeela ohartu zen. Begira gelditu zaitzadan esanez bezala, ‘Ana, ulertu dut zer gertatzen den hemen’. Bi urterekin iritsi zen kontzeptu horretaraino”.

### Dokumentazio-lana, ondorioak atera eta proposamenak hobetzeko

Malaguzzik utzitako ikasgaien bideetik, tailerretan gertaturiko guztia dokumentatu egiten dute Egunsenti haur-eskolan, batik bat argazki bidez. Eta, ondoren, patxada momentu bat hartu eta argazkiek erakusten dutenari erreparatzen diote: “Dokumentatu dugunaren interpretazio lan bat egiten dugu. Gertatu denari zentzu bat eman behar diozu, bestela airean gelditzen da dena.” Beraz, interpretazioa “funtsezko gaia” da Araujorentzat.

Ariketa horren bidez, beti ere tailerrera eramandako proposamena eta aukeratutako materialak ebaluatzen dituzte, baina “inola ere ez haurra bera”. Bestalde, “onartu behar duzu zurea interpretazio subjektiboa dela”, eta, horrenbestez, Araujori oso garrantzitsua iruditzen zaio bikote pedagogikoa egitea lan, bietako bakoitzak egindako interpretazioarekin tailerretan gertatutakoaren argazki osatuagoa egiteko.

Interpretazio-ariketari esker, hobetu beharreko puntuak identifikatzen dituzte, eta hurrengo proposamena osatzerakoan erabiltzen dute informazio hori.

### Tailerra, proiektuaren parte

Dena dela, Araujok azpimarratu duenez, ezin da tailer bat bere horretan sortu, oinarrian ez badago ildo bereetik doan proiektu pedagogiko sendo bat. Bere hitzetan, “tailerra proiektu baten baitan dago. Ez da aparteko espazio bat, eta lotuta dago umeez, familiez, eskolaz... duzun ikuspegiarekin. Tailerretan ikasten duzuna ez da gela horretan gelditen, ondoren eskolako beste espazioetara ere eramaten duzu”. Beraz, zertarako tailerra? “Gauzak hobeto ikusteko eta ikasteko”. •

PASAIKO HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO PLANA

## Haurren ongizatea, herritar guztiek partekatzen duten erantzukizuna

**2008an, Pasaiako zenbait adingabe baztertuta zeudela ikusi, eta esku hartzea erabaki zuen Pasaiako Udalaren Gizarte Ekintza Sailak. Laster, udaleko gainerako sailak inplikatu ziren arazoari erantzuteko; gerora, baita herriko hainbat eragile ere, eta herri guztia busti du, azkenean, haurren eta nerabeen eskubideen aferak. Izan ere, arazo zehatz bati erantzuten hasi zen ekimen bakan hura, gaur egun, Pasaiako Haur eta Nerabeen Eskubideak Bermatzeko Plana bilakatu da.**

Hik Hasiren XX. urteurrenaren harira antolaturiko *II. Herri Hezitzaile, eskola herritarra* jardunaldietan, ekarpen mamitsua egin zuen Pasaiako Udalak: Haur eta Nerabeen Eskubideak Bermatzeko Plana eta hori garatzeko metodologia aurkeztu zituen. 2008an, herrian baztertuta eta babesik gabe egon zitezkeen haurrak eta nerabeak bazirela jabeturik, egoera horri aurre egiteko lanean hasi zen udala, eta, hortik abiatuta, plangintza oso bat garatu du haurren eta nerabeen eskubideak betetzen direla bermatzeko.

Hiru ildo nagusitan oinarritzen da plangintza, eta horietako bakoitzak bere helburuak eta ekintza-plana ditu. Ildo horietatik lehenengoa “Tratu

onaren aldeko prebentzioa eta sustapena” deiturikoa da; hain zuen ere, ildo horretan dago plangintzaren hazia eta jatorria.

### Bazterketari aurrea hartzea xede

Haurrak eta nerabeak baztertzeko arriskua sortzen duten egoerei eta babesgabe egon daitezkeen egoerei aurrea hartzea du helburu nagusi lan-ildo horrek; azken finean, gazteen ongizatea bermatzea. Bestela esanda, “bestearen intimitatea ukatzen, zikintzen edo barregarri uzten duten egoerak” saihestu nahi dituzte.

2008an, bazterketa-egoera jasaten ari ziren haur eta gazte multzoa ze-goela detektatu zuen udaleko Gizarte Ekintza Sailak, eta orduan jarri zuen abian lan-ildo hori. Berehala ikusi zuten egoerari aurre egiteko udaleko gizarte-gaietako gainerako sailen inplikazioa behar zutela ezinbestean, eta, horretarako, “Sailen arteko lan-mahaia” osatu zuten.

Harrezkero, lanean jarraitu du mahai horrek, Haur eta Nerabeen Eskubideak Bermatzeko Planaren barruan gaur egun, eta hamabostean behin elkartzen dira. “Elkarlanean eta demokrazia parte-hartzailearen filosofian” oinarritzen da haien metodologia, Pasaiako migrazio-teknikari Marian Suarezek azaldu duenez.

Baina, haur eta nerabeen ongiza-

tea bermatzea herritar guztien ardura dela sinetsirik, herritar guztiak inplikatu nahi izan dituzte lan-ildo horretan. Horregatik, hainbat sentsibilizazio-kanpaina eta -ekintza egin dituzte, ardura publikoaz gain ardura soziala ere sustatzeko.

### Elkarteekin elkarlanean

Zehazki gaiarekiko ardura soziala sustatzeko filosofiarekin bete-betean bat eginez, “Haur eta gazteekin lan egiten duten elkarteak biziberritza” da plangintzaren bigarren lan-ildo. Izan ere, elkarte horiek hamaika jarduera eskaintzen dizkiete haurrei eta gaztetxoei eskolaz kanpoko aisialdirako, eta, udalaren esanetan, eragile garrantzitsuak dira haurren sozializazio-prozesuan.

Elkarte horietako askok, ordea, zailtasunak dituzte boluntario-lanarekin jarraituko duten begiraleen belaunaldi berriak aurkitzeko eta, bereziki, Pasaiako haur eta nerabeen hizkuntza-eskubideak errespetatuko dituzten begirale euskaldunak aurkitzeko. Finantzaketa lortzeko arazok, berriz, jarduera-eskaintza murriztera behartzen dituzte.

Elkarte horiek biziberritza beharrezkoa zela ikusirik, Elkarte Gunea sortu zuen udalak 2008an. Kirolarekin, aisialdiarekin eta kulturarekin loturiko 17 elkartek hartzen dute partegune horretan, udaleko hainbat sai-



letako ordezkariekin batera. Hiru hilean behin elkartzeko dira gaur egun, besteak beste, udalak laguntza eman dien begiraleen prestakuntza indartzeko eta begirale berriak lortzeko, horiek euskaldunak direla bermatuta. Horrez gain, haur eta nerabeentzat erakargarria izango den eskaintza osatzen laguntzen die.

### Aukera berdinarantz

Planaren hirugarren eta azken lan-ildoak "Adingabekoen harrera egokia sustatzea, jatorria dena delakoa izanik ere" deiturikoa da. Izan ere, Hik Hasiren jardunaldian azaldu zutenenez, Pasaiaiko portuak migrazio ugari erakarri du, azken hamarkadetan bereziki. Hasiera batean, bai Galiziatik bai Portugaldik iritsi ziren etorkin gehienak, baina etorkinen jatorria nabarmen zabaldu da, eta gaur egun Pasaian 33 hizkuntza erabiltzen direla kalkulatu dute. Egoera horretan, "elkarbizitza erronka handia da, batik bat erantzukizun publikorako", eta horregatik sartu dute plangintzan hirugarren ildo hori. Herrira hainbat jatorritako adingabeak iristen dira, eta guztiei eman nahi diete harrera egokia, "gure hizkuntza eta kultura ezagut ditzaten, eta, era berean, beraien hizkuntza- eta kultura-aberastasuna aintzat hartzen direla senti dezaten." Eskolaz kanpoko guneak ere sortu dituzte, jolasaren bidez gainerako haurrekin harremanetan jar daitezela.

Hau guztia bideratzeko, "Hezkuntza Gunea" deituriko batzarra sortu du udalak. Gune horretan, udalordezkariak Pasaiaiko ikastetxeetako ordezkariekin biltzen dira bi hilean behin, eta, besteak beste, haur eta nerabeen eskubideen gaia eskolatan lantzea eta horiek beraien curriculumetan txertatzea lortu dute.



Lan-ildo horren azken helburua "Pasaiaiko gazteek, eskubideak ez ezik, etorkizunean aukera berdinarantz litzateke. Horretarako, herritarrek "aniztasunaren aberastasunaz jabetzeko eta aniztasunean bizitzea guztiontzat positiboa dela agerian uzteko", hainbat sentsibilizazio-jardura egin dute herrian.

### Balio-hezitzaileak zabalduz

Errespetua, elkartzasuna, bizikidetzatza, partaidetza eta antzeko balio hezitzaileak haur eta gazteekin lan egiten duten guztiek barneratu ditzaten eta udaletako lerro estrategiko guztietan aintzat har daitezela, ildo horiek guztiak plan bakarrean bateratu dituzte udalak, Haur eta Nerabeen Eskubideak Bermatzeko Planean, hain zuzen ere.

Filosofia horren ildotik eta aurrez aipaturiko gune guztiez gain, Udalerri Zerbitzu Gunea ere sortu du udalak. Gune horretan 10 udal-zerbitzuko hartzen dute parte, haurrekin eta nerabeekin lan egiten dutenak guztiak, udal-ibilburutegia, musika-eskola, kiroldegia, gazte-lekua edo ludoteka, kasu. Hilean behin elkartzeko da gune hau, gainerakoak baino sarriago, berriena delako eta oraindik abiada hartzen

ari direlako. Besteak beste, udal-begiraleen prestakuntzan jarri dituzte indarrak, eta, hala, haurrak eta nerabeak babesgabe daudenean nola jokatu irakatsi diete, esaterako.

Horrela, bada, elkarlanerako espazioak eta erabakiguneak sortu dira, bai udalaren baitan, bai udalaren eta eragileen artean, haur eta nerabeen eskubideen afera "guztion ardura" delako.

### Protagonistek protagonismoa hartzea falta

Orain arte eginiko bidearekin eta lorpenekin gustura dauden arren, "zailtasunak, zailtasunak eta erronkak" ez zaizkie falta, udaleko euskara-tekni-kari Jaione Urruzolaren esanetan: gizarte-sarea sendotzea eta hedatzea; euskara erdigunean jartzea, edo "aniztasunaren inguruko begirada zabaltzea", besteak beste. Hala ere, erronka nagusia "haur eta nerabeen parte-hartzea areagotzea" da, Urruzolak aitortu duenez: "eta, parte-hartzea esaten dugunean, haurrek iritzia ematea, proposamenak egitea, erabakiak hartzea eta horiek gauzatzeko ardurak hartzea esan nahi dugu." •

AMARA BERRI

## Unean uneko erronkei erantzuteko prestatzen dituzte haurrak; orainaldirako, eta ez etorkizunerako

**35 urte baino gehiagoko ibilbidea badu ere, berritzaile eta eredugarri izaten jarraitzen du Amara Berri sistemak. 1979an Loli Anaut buru zuen irakasle-taldeak sortutako hezkuntza-egitasmoa eraldatzailea da. Uneotan Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako 19 ikastetxetan dago martxan. Adin-nahasketa, bizitza erreala oinarri duten testuinguruak, haurren interesen arabera ekintzak eta maila ezberdinetan lan egiteko aukera ematen duten jarduerak dira, besteak beste, Ama Berri hezkuntza-ereduaren arrakastaren gakoak.**

Lehen begiratuan eskola arrunt bat dirudi Amara Berri zentroak, Donostiako Ferrerias kalean, Anoetako estadioaren ondoan dagoenak. 1.270 ikasleko ikastetxe publiko bat da, ohiko ikasgelak ditu, ondo egituraturako ordutegia... Barrura sartzean, ordea, berehala deitzen du arreta lan egiteko moduak: adin-diferenteetako haurrak elkarrekin daude; umeak euren kasa ari dira lanean —bakarka edo taldean—, bakoitza berea egiten eta ez guztiak gauza berbera; ikasgelak hainbat testuingurutu daude banatuta; haurrek bakoitzak bere erritmoari jarraituz dihardute beroie-



Ezkerretik hasita, Elena Gerrero Amara Berri sistemarekin lan egiten duten ikastetxeen koordinatzailea; Maribi Gorosmendi, Amara Berri zentroko ikasketa-burua; eta Karlos Garaialde, Amara Berri zentroko zuzendaria ageri dira argazkian.

tan lanean; eta irakaslea bat gehiago da taldean, erreferentziazko laguntzailea.

Ikasleen arteko desberdintasuna eta aniztasuna oinarri hartuta, ikasle-ekikertzea, saiakuntzak egitea eta berritzea dute xede. Baina horretan ere ez da gainontzeko eskoletatik desberdintzen. Izan ere, Amara Berriko oinarriko filosofia ikastetxe gehien antzekoa da. Ferreriaseko zentroko ikasketaburu Maribi Gorosmendik eta Amara Berri metodologiarekin lan egiten duten ikastetxeen sareko koordinatzaile Elena Gerrerok azaltzen duten moduan, euren gidalerroak “ez dira beste mundukoak”, baizik eta eskola aktiboa defini-

tzen duten berberak dira, “eta edonork esangoluke printzipio horien alde dagoela”. Haien esanetan, Amara Berri beste ereduetatik desberdintzen duena teoria hori praktikara eramateko modua da: “Alderdi metodologikoetan egiten dugu azpimarra, eta ez gara hitz hutsetan geratzen”. Haur bakoitzak bere bidea egiteari ematen diote garrantzia, indibidualizazio prozesuan arreta handia jartzen dute, eta horrek eguneroko praktikan eragina du: adin nahasketa, jarduera irekiak, maila diferenteetan lan egiteko aukera, testuinguru sozialak sortzea, haurrei askatasuna ematea... “Praktika horiek ez dira kasualitatea, baizik eta filosofia oso baten isla”.



Amara Berri ez da proiektuka lan egiten duen sistema bat. Hori baino gehiago da: haurren eguneroko bizitzarekin zerikusi zuzena duten tesuinguru egonkorak dituzte, eta hurrek tesuinguru bakoitzetik behin eta berriz igarotzeko aukera dute, tesuinguru horretatik atera dezaketen jakintza guztia ateratzeko. Amara Berri sistemaz edo ereduaz hitz egiten dute arduradunek. 70eko hamarraldi amaieran Loli Anautek gidatutako irakasle talde batek martxan jarri zuen hezkuntza-egitasmoa da. Erabat berritzailea garai hartarako. Donostiako Amara Berri auzoan erein zuen hazia eta uneotan Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 19 ikastetxek osatzen dute Amara Berri ereduarekin lanean diharduten ikastetxeen sarea. Bertan Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zentroak dituzte.

Amara Berri sisteman diharduten zentro guztiek modu berebean uler-tzen dute euren lan pedagogikoa: ikaslea da hezkuntza komunitatearen jardunaren zentroa eta haur bakoitzaren garapen harmoniko eta globala helburua. Ikasleen egoera emozionala eta soziala oso kontuan izan dute, bai baitakite klabeak direla beren garapen prozesurako. Eta zentzu horretan, eskola haurrak bizi diren ingurune gisa ulertzen dute, “bizi diren heinean ikasten baitute hurrek”.

Ikasleen beharrei, interesei eta

ikasketa moduei erantzutea da Amara Berriko metodologiaren printzipio nagusia. Ez dituzte haurrak etorkizunerako prestatzen, baizik eta oraindian dituzten erronkei aurre egiten lagunduko dieten estrategiak eskaintzen dizkiete. Eta horrek guztiak metodologian eta eguneroko praktikan du isla. Hain zuzen ere, horretxek desberdintzen du Amara Berri egitasmoa eskola-eredu tradizionala etatik.

### Adinak nahasian

Baina zein dira metodologia berritzaille horren gakoak? Horietako bat adin nahasketa da. Zikloka funtzionatzen dute Amara Berrin. Hala, LH1 eta LH2ko ikasleek elkarrekin lan egiten dute, baita LH3 eta LH4koek nahiz LH5 eta LH6koek ere. Hasiera-hasieratik Amara Berri sistemaren barruan

aplikatu duten ezaugarrietako bat izan da adin nahasketarena eta hainbat arrazoi ematen dituzte praktika hori defendatzeko. Haurrek zikloko gazteenak direnean zaharragoen erreferentzia dute; zaharrenak direnean, berriz, gazteagoei lagun diezaiekete. Gorosmendi eta Gerreroren ustez, bi egoera horiek aproposak dira hurrek euren ikasketa-prozesua gara dezaten: “Nagusiagoengandik ikasteak ez gaitu harritzen; bai, ordea, gazteagoekin ikasteko modua edukitzeak. Baina kontuan izan behar dugu dakigun hori beste bati azaltzeko gai garenean gertatzen dela benetako ikaskuntza. Zerbait hitzez jartzen dugunean eta horren kontzientzia hartzen dugunean, asko ikasten dugu. Eta gela berean gazteagoekin egoteak horretarako aukera ematen digu”.





Horrez gain, adin nahasketa tarteko, ikasleek rol diferenteak esperimentatzeko aukera dute: ikasturte batez gazteenak izango dira, berriak, laguntza eskatzen eta eskertzen jakin beharko dutenak; hurrengo ikasturtea, aldiz, helduenak izango dira, dakitenak, besteei lagunduko dietenak... Emozioen alderdiari dagokionez ere, oso garrantzitsua iruditzen zaio Gerrerori adin nahasketa, pertsona bakoitzak rol desberdinak esperimentatzeko parada ematen baitu: “Badira pertsona batzuk, ikasturte guztietan talde berberarekin joango balira, beti patro berberari erantzun go lioketenak, rolak finkatu egiten baitira. Hortaz, nagusiak izatea tokatzen zaienean, zailtasunak izan ditzaketan haurrek, aukera dute ume gazteagoi laguntzeko. Ondorioz, euren burua beste egoera batean ikusten dute eta beste modu batean jokatzeko gai direla konturatzen dira”.

## Departamentuak eta txokoak

Testuinguru sozial, egonkor eta osagarrien bidez programatzen eta antolatzen dute eguneroko jarduna Amara Berrin. Testuinguru horiek bizitza errealekin lotura izan ohi dute, ikasleen iteresekoak izaten dira, bakoitzari bere erritmoan joatea ahalbidetzen diote eta elkarrekintza soziala sustatzen dute. Hainbat testuinguru daude departamentu bakoitzean. Baina zeri deitzen diete departamentua? Gai espezializatu baten inguruan antolatzen den gelari. Ziklo bakoitzean lau zabalde departamentu dituzte: zientzia ardatz duena, matematika ardatz duena, hizkuntza ardatz duena, ingelesekoa edota komunikabideena.

Departamentu horietako bakoitza lau txokotan antolatzen dute: txokobakoitzak testuinguru ezberdin bat osatzen du. “Departamentuaren egitura, oro har, guztietan berbera da: lau txokotan banatzen dugu. Batetik, iruditzen zaigulako txoko batean elkartzen den pertsona kopuruak interakzio handia izan dezakeela; bestetik, berriz,

txokoetako bik pisu handiagoa izaten dute irakaslearentzat eta esku-hartze handiagoa eskatzen diote, baina beste bietan ikasleak modu autonomoagoan jarduten dira”. Txoko edo testuinguru bakoitzean hainbat jardura izaten dituzte egingarri eta jardura bakoitzak bere lan-metodo zehatza izan ohi du. Gainera, testuinguru eta jardura horiek berberak izaten dira ziklo osoan zehar, eta beraz, ikasleek eginkizun bera behin baino gehiagotan egiteko aukera izaten dute: “Ikaskuntza-prozesuan zehar haurra aldatuz doa, eduki gehiagoren jabe eginez eta hainbat gaitasun bereganatuz. Beraz, bizitzan zehar, behin baino gehiagotan txoko berberetik pasatzeko aukera izateak testuinguru horretatik atera dezakeen zuku guztia ateratzeko parada eskaintzen dio umeari”.

Departamentu bat diseinatzen dutenean bi alderdi izaten dituzte kontuan: batetik, legeak zer jartzen duten eta dekretuak zer dion, hau da, haurrek zer ikasi behar duten; eta bestetik, umeen interesak zein diren. “Adibidez, Lehen Zikloan legeak esaten badu, matematikaren arloan neurriak ikasi behar direla, guk gure buruari zera galdegiten diogu: adin horretako haurrei zer gusatzten zaie egitea? Salerosketan ibiltzea, etxetxotan jolastea... Hortaz, matematika ardatz duen “Auzoa” izeneko departamentuaren barruan, ponpoiak eta telarrak egiteko jardura erreal bat proposatzen diegu: horretarako zenbat hari beharko duten kalkulatu behar dute, gero erosi, ondoren josi... Gainera, modu horretan, zeharka, neurriak ez ezik, beste gai batzuk ere lantzen dituzte haurrek: hizkuntza, plastika, talde-lana... Izan ere, guk ez dugu uste arlo bat bere horretan, beste gainontzeko errealitatek bereizita, landu daitekeenik”.

Aipatutako bi alderdi horiez gain, beste ezaugarri bati ere arreta handia jartzen diote departamentua diseinatzerako garaian: txoko edo testuinguru denetako jardura guztiek ikasleei maila ezberdinetan lan egiteko aukera ematea. “Indibidualizazio kontzeptua guretzat funtsezkoa da, eta bakoitzak

bere erritmoaren eta bere interesen arabera lan egiteko aukera izan behar du. Esaterako, testuliburu arrunt batek ez luke horretarako aukerarik emango, baizik eta ikasle guztiak aldi berean ari keta berbera egitera bideratuko lituzke”.

Gorostmendik azaldutako eran, Amara Berrin guztia dago koherentzia erreal baten arabera antolatuta. Hezkuntza-eredua antolatzerakoan behin eta berriz galdetzen diote euren buruari gauza bera: Nola ikasten dugu guk bizitzan? “Galdera horri erantzuten saiatzen gara. Izan ere, bizitza errealean, testuinguruak motibagarriak direnean ikasten dute pertsonak, eta egiten duten horri zentzua aurkitzen diotenean”. Konpententziekin lotzen du ideia hori: “Konpetente izatea ez da informazioa edukitzea; konpetente izatea da daukazun informazio hori egoera errealean aplikatzeko gai izatea edo eguneroko egoera errealei aurre egiteko erabilitzea”.

Departamentu bakoitzeko ardura-duna irakasle bat izaten da, eta ikasleak dira departamentu batetik bestera joaten direnak. Irakasle hori, aldi berean, ikasle-talde baten tutorea ere bada. Hala ere, ziklo bakoitzeko tutoreak astean behin elkartu egiten dira haur bakoitzaren jarraipena egiteko. Haurrek heldu desberdinekin egiten dute lan eta hori ere oso aberasgarria iruditzen zaie Amara Berrin. “Gerta liteke haurrak tokatu zaion heldu horrekin ez konektatzea, edota alderantziz. Aldiz, erreferentziazko heldu bat baino gehiago izanik, ikasleek zein irakasleek aukera dute hartu-eman egokiak egiteko”.

## Jarduerak zertarako?

Amara Berrin profesionalentzat funtsezkoa da haurren ikaskuntza esanguratsua izatea eta egiten duten horrek “zertarako” bat izatea. Hau da, egiten dituzten jarduerak zentzua edukitzea eta ikasleek egiten dituzten lanei irteera ematea. Horretarako komunikabideen departamentua daukate. Haurrek euren telebista, irratia, prentsa eta webgunea dinamizatzen dituzte, eta etenga-

beko jarioan egoten dira. “Hedabideena eskolan egiten ditugun lan guztiei irteera ematen dien lzerbitzu bat da. Adibidez, nik ipuin bat sortzen badut, gero ipuin hori irrati bidez eskola guztiko entzuleei helarazteko aukera izango dut”, azaltzen du Gerrerok. Gela bakoitzeko bi ikasle komunikabideen sailera joaten dira eta bi egun oso han igarotzen dituzte dagokien lanean: zer kontatu, nola egituratu, zein grabazio egin, baliabide teknikoak nola erabili... Hori guztia erabakitzen eta egiten dute, beti ere, departamentu horretako irakasle arduradunaren laguntzaz. Ikasturtean zehar ikasle bakoitza behin eta berriz igarotzen da departamentu horretatik, guztira 12 bat egun bertan eginez.

### Sarearen garrantzia

Amara Berri hezkuntza-ereduaren baitan lan egiten duten 19 ikastetxeek harreman estua dute elkarrekin. Batak bestea elikatzeko konpromisioa hartua dute eta talde-lanerako etengabeko joera eta gogoia. Hilean behin zuzendaritzako partaide guztiak elkartzen dira, esperientziak eta materialak trukatzeko dituzte, bisitak antolatzen dituzte, sare-



ko kideen arteko topaketak egiten dituzte... Gerrerok eta Gorosmendik azpimarratzen duten bezala, Amara Berri arrakastan haztan joan bada, denen arteko elkarlanari esker izan da: “Proiektu komun bat dugulako egin dugu aurrera, batak eta besteak egiten duenarekin elkar-elikatu garelako eta elkarrekin hobetuz bidea egin dugulako”.

Arduradunen esanetan, Amara Berri bizirik mantentzen duen beste ezaguri bat da sistema irekia izatea, eta ez metodo hertsia: “Alde batetik sareko kideen arteko elkarreaginaren ondorioz,

eboluzionatuz goaz; baina bestetik, kanpotik ere interesatzen zaizkigun elementuak hartzen ditugu, eta horren eraginez ere, birmoldatuz doa Amara Berri sorburuan zen sistema hura”. Horretarako, etengabeko formazioa dute ardatz, baina formazioa euren praktikatik abiatuta egiten dute, ez unean uneko “moda” pedagogikoen arabera: “Moden baitan ezin gara egon; horrek ez luke koherentziarik. Guk egiten duguna praktika baldin bada, praktika hori hobetzeko modu bakarra praktikatik abiatzea da”. •



# 10. Baliabide Pedagogikoen GIDA

**Ekainean PRESTATU, uztailean INPRIMATU eta iraileko lehenengo astean BANATU**

**GIDAn azaltzeko interesa dutenek eska dezatela informazioa HIK HASIN**

**gida@hikhasi.eus 943 371 408**

## Dolua, galera, aldaketa, gabezia... zer atera dezakegu baliotsua?



Galera bizitzen ari den pertsonari, mina arindu nahian, kontsolatzeko hitzak esaten dizkiogu. Adibidez, beilatokian, laurogeita zortzi urteko ama galdu duenari, doluminak ematearekin batera, ama hainbeste urtez osasuntsu bizi izanaren balioa agertu dio lagunak.

Baina mina... mina da, eta sentitu egiten dugu. Agian bular aldean, sa-belean... edo gorputz guztian. Gale-rak, erantzun emozionalarekin lotu izan den arren, badu, baita ere, di-mentsio fisikoa, kognitiboa, filosofiko eta jokaerazkoa.

Esaten da, dolu-mina, ERABATE-KOA dela: min psikologikoa, biologikoa (gorputzak min du), soziala (gizarteak eta bere izateko erak mintzen gaitu), familiarra (besteen minak min ematen digu). Min ematen digu iraganak, min orainak eta min etorkizunak. Bizitzeak min ematen digu. Agur-rak berekin du samina.

Txupetea "kendu" diogun umeari ere, ez zaio erabat lasaigarri "handia



**EDURNE SALEGI**  
YOGA IRAKASLEA

zara" esaera, kontsolamendu eta la-gun izan duen hori falta duenean.

Baserria erre zaion andreari, es-perientzia horretatik zerbait baliotsu atera dezakela esatea... ez zaigu otu-tzen. Semea edo alaba galdu duena-rentzat, ez dugu hitzik; inork ez dugu horrelakorik bizi nahi.

Dolu prozesua, prozesu minga-rria da. Krisialdia ez da izaten atsegi-

na, ezta erraza ere. Azken txanpan su-ma dezakegu berreskurapena eta onarpena. Osatzen eta sendatzen ari garenaren sentipena, bizitzarekin ja-rraituko dugula...

### Zer dira dolu desautorizatuak?

Demagun, hamabi urte berekin bizi izan den txakurra hil zaiola lankidea-ri. Triste dagoela eta denbora batez ez dela lanera etorriko esaten badigu... onartzen dugu?

Jaio aurretik umetxo hil zaion emakumeari, borondate onarekin, esan zaio: "gaztea zara eta ekarriko duzu oraindik beste bat..."

Baimendu gabeko doluak dira, ezeztatzen direnak. Horien artean umeei ezkututzen diogun heriotza dago.

Orokorrean, geure buruari eta besteari, baimentzen ez dioguna izan daiteke honakoa: mina sentitzea. Sentsazio eta sentimendu desatsegi-nak bizitzea, hala nola, tristura, gogo-rik eza, bakardadea, hustasuna, anbi-



balentzia, nahasmena, frustrazioa, inpotentzia, etsipena, ezina, amorrua...).

Negaregitea, nola kontsideratzen dugun gure kulturaren? Sentimenduak bereizten ditugu emakume eta gizonezko izatearen arabera? Emozio batzuk besteak baino onargarriagoak egiten zaizkigu?

### Mina eta sentimendu desatseginak ukatzeak.. desagertarazten ditu?

Ukatu, gutxietsi, balioa kendu, arrazoitu, kontsolatu, entretenitu, drogatu... ez sentitzeko erak izan daitezke, mingarria eta desatsegina denari erreparatzea ezezaguna egiten zaigu eta. Baina ukatzeak nekez lortzen du desagertaraztea. Hor daude, gorpuztuta, ezkutuan eragiten.

Ez gaude ohituta geure buruari sentitzeko denbora ematera, ez exijitzea geure buruari "ongi" egotea; ez gaude ohituta, eta azken finean ez dakigu zer egin gauza hauekin. Pentsa dezakegu ezingo dugula jasan, beti-

rako geldituko garela iluntasun horretan.

Deserosoa, jasanezina zaigu, ondokoa gaizki pasatzen ikustea. Nola lagundu diezaiokegu trantze unean, saminean?

Ikastaroan egingo dudan proposamenetako bat honakoa da: mina eta sentimendu desatseginen funtzioa eta balioa zein da? Zer egin dezaket beraiekin? Nola lagundu naiteke, nola akonpainatu, besteari ere lagun egin ahal izateko?

Bideak berekin ditu baita ere samurtasuna, sentiberatasuna piztea, sormena (adibidez, lagungarri den erriroa asmatu eta partekatzea)...

### Hazkundera, heldutasuna, esperientzia, sentiberatasuna, edertasuna, gizatasuna, hurbiltasuna, ulermena, maitasuna, apaltasuna, elkartasuna, indarra, bizitza baloratzea, esker-tzea, ospatzea... bizitza bizitzea!

Maite ditugun pertsonak, animaliak, gauzak, lana, erlazioak, lekuak, eta-

**Maite ditugun pertsonak, animaliak, gauzak, erlazioak, etapak, gaitasunak... galtzean, gure sineskeriak eta bizitza beste modu batean antolatze beharra sortzen zaigu. Krisiek eta egoera traumatikoek puskatu egiten gaituzte. Desegin eta ondorengo berrantolaketak berekin ditu mina eta egokitu beharra.**



pak, gaitasunak edo idealak galtzen ditugunean, gure sineskerak eta bizitza beste modu batean antolatze beharra sortzen zaigu. Krisiek eta

# Hitzmix

elhuyar

Euskara jolastuz lantzeko



Probatu,  
jokatu eta gozatu!

Google Play eta iTunes dendetan

Tabletarako  
aplikazioak  
(Android eta iOS)

eta zifrekin jolasteko...



Egungoak:



**Ekintzak zentsuratzen ditugu (min egitea, kasu); sentimenduei, ordea,**

**leku egin diezaiekegu. Fantasiaren erabilera, pentsamendu**

?

**magikoa, jolasa, marrazketa, plastilinarekin irudikatzea, idazketa, ipuina, ilustrazioak, errittoa... lagungarri dira sinbolizatzeke, geure narrazioa eraikitzeke.**

egoera traumatikoez puskatu egiten gaituzte. Desegin eta ondorengo berantolaketak berekin ditu mina eta egokitu beharra. Prozesuaren ondoren, bizipenaren ondoren, gure begirada tristeagoa da agian, eta jakintsuagoa, sakonagoa... ez hain sineskorra.

### **Umeekin eta gazteekin dolua lantzen**

Umeei erakusten dizkiegu matematikak, ingelesa eta gainerako jakintzak. Gauregun, geroz eta gehiago hitz egiten da, adimen emozionalari buruz. Norbere emozioetatik ohartzea, adieraztea, besteekin harremanetan sartzeta... abileziak ere badira.

Barneko bizipenak, kanpotik jasotzen ditugun ezaguerak baino premiazkoagoak agertzen zaizkigu askotan. Behar dugu bizitzen ari garena aintzat hartzea. Ipuinetan edo pelikuletan agertzen diren pertsonaiekin (umeentzako ipuinetan animaliekin ere erreprezentatzen dira) edo egoerarekin identifikatu gaitezke, eta geurea islatuta ikustean barnean bada zerbaitez baretzen zaiguna. Sentimendu eta beharregatik esaten da, gau-



zatea baino premiazkoagoa dutela errekonozimendua.

Demagun anaiaren jaiotzak ikututa dagoela mutikoa. Umeez, hitzekin baino, portaerarekin adierazten dituzte beren barne sentipenak. Hase-reea izan ohi dute sarritan adierazbide umeez eta gazteek.

“Jeloskor nago, intseguritatez beteta”, “zure maitasuna galtzeak izutzen nau”, “mimoak eta arreta behar ditut”, “jasangaitz jartzen naizenean ere behar dut, behin ere baino gehiago, zuen maitasuna eta ulermena”. Orokorrean, umeak ez du honela hitz egiten, nola portatzen diren erreparatu behar dugu jakiteko nola dauden barnetik.

Guk bai, jarri diezaiokegu hitza beren bizipenei “nirekin bakarka egon nahi duzu, umetxo gabe?”, “ez duzu nahi bera hemen egotea...”.

Ekintzak zentsuratzen ditugu (min egitea, kasu); sentimenduei, ordea, leku egin diezaiekegu. Fantasiaren erabilera, pentsamendu magikoa, jolasa, marrazketa, plastilinarekin irudikatzea, idazkera, ipuina, ilustrazioak, olerkia, errittoa, musika, masajea... lagungarri dira, sinbolizatzeke, geure narrazioa eraikitzeke.

Gurasoen banaketa bizitzen ari diren umeez ere dolua, erruduntasuna, pena, besteen desberdina izateko beldurra, ziurgabetasuna, inpotentzia... bizi ohi dituzte.


Irakaslea sentibera izatea, umea edo nerabea etxean bizitzen ari denaren aurrean, oso lagungarri izaten da ikaslearentzat eta bere familiarentzat.

Irakasleek, ikasgaiaren aurretik, irudikatzeke eta barnearekin konektatzeko ariketak praktikatu ditzakete beren ikasleekin. Gustuko izaten dute umeez eta gazteek, eskatu egiten dute, ikasgaiari kontzentratzeke ere lagungarri zaie.

Artikulu hau bukatzeke, Benito Lertxundik abesten duen kanta baten zatitxo batekin egingo dut, honela dio: “Zer axola nere inguruan iluna hertsitzen bada? Gauean kantak sortzen ditut, gauean kantak sortzen ditut. Zergaitik utzi behar ote diot, zergaitik utzi kantatzeari?” Kantuan ere... amaitzeko.

**\*Eduarne Salegik artikuluaren izenburu bereko ikastaroa emango du Hik Hasiren Udako Topaketetan, uztailearen 1, 2 eta 3an Donostian.**

# argitalpenak



**Eguraldia**  
Anne-Sophie Baumann

## TTARTTALO

Zergatik ditugu urtaroak? Zerez eginda daude hodeiak, eta zergatik batzuetan euria botatzen dute eta besteetan txingorra edo elurra? Zer tresna ditugu eguraldia aurreikusteko? Nola prestatzen da telebistan ikusten duzun eguraldi-buletina? Istorio baten moduan kontatzeko liburua da honakoa, eta dokumental baten moduan ikustekoa. •



**Otto errinozero bat da**  
Ole Kund Kirkegaard /  
Itzultzailea: Garbiñe Ugarte

## SUSHI BOOKS

Arkatx magikoa hartuta, Topperrek errino bat marraztu du gelako paretean. Zer-nolako ezustekoa hartu duen margo huts zen errinozeroa egiazko bihurtu dela ikustean! Etxean edukitzeko animalia handi samarra da, ordea, eta lagunekin eta auzokoekin batera saiatuko da konponbidea aurkitzen. •



**Neuk sendatuko zaitut, tigre**  
Janosch

## PAMIELA KALANDRAKA

Tigre txikia zelaian botata aurkituko du hartz txikiak, eta besoetan bere etxera eramango du, zaurituta baitago. Han, bi besoak eta bi hankak bendaz estali eta salda pixka bat prestatuko dio, baina tigre txikia ez da osatuko. Hartzak, beste animalia batzuen laguntzarekin, zaindu eta sendatzen lagunduko dio, tigre txikia guztiz osatu arte. •



**Kaixo! Txomin eta Katalin gara**  
Liesbet Slegers /  
Itzultzailea: Leire Mendizabal

## IBAZABAL

Liburuak Txomin eta Katalinen lau istorio berri dakartza: baratzeko lanak, erosketak, gaileren prestaketa eta jolasak, hain zuzen. Istorio bakoitzaren amaieran, kontakizuneko gaiekin lotutako jarduerak eta jolas sinbolikorako proposamenak daude. 3 urtetik gorako haurrentzat. •



**Elsa eta paradisu**  
Mariasun Landa /  
Ilustratzailea: Elena Odriozola

## GILTZA

Elsak 5 urte zituenean entzun zuen lehen aldiz paradisu hitza. Zer zen galdetu eta inork ez zion erantzunik eman. Uda batean, Elsak 10 urte zituela, dama bitxi bat ezagutu zuen Elsak oporretan, eta emakume xeble hark paradisuari buruz kontatzen ziona entzuteari ekin zion. •



**Ozeanoa**  
Anouck Boisrobert / Louis Rigaud

## TTARTTALO

Pop-up liburu ikusgarri honek itsasoak eta ozeanoak zeharkatzera daramatza irakurleak; ezustekoz beteriko bidaia batean murgildu, eta ozeanoak gordetzen dituen hainbat eta hainbat altxor deskubrituko dituzte. Gainera, izadia maiatzen eta babesten irakasten die liburuak irakurleei. 3 urtetik gorako haurrentzat da. •



# hik hasi-ren proposamena

Arbizuko kanpin ekologikoa

## Ingurune aparta zaintzeko konpromisoa

**Urbasa eta Aralar mendilerroen artean eta Beriain mendiaren magalean, mendizaletasunaz eta naturaz gozatu nahi dutenei hamaika aukera eskaintzen dizkie Arbizuko kanpin ekologikoak, Nafarroako Sakanan. Ingurune natural hori errespetatzeko konpromisoa hartu dute, gainera, eta, bioeraikuntza, bioklimatismoa eta antzeko kontzeptuak eta energia berriztagarriak hartu dituzte aintzat kanpina eraikitzerakoan. Ekologiaren eta ardura sozialaren balioetan oinarriturik, prestakuntza eta hezkuntza ere helburu ditu kanpinak, eta, horretarako, hainbat ikastaro antolatzen ditu.**

Arakil ibaiak Aralar eta Urbasa mendilerroen artean sortu duen korridorean dago Arbizu udalerrria, Nafarroako Sakanan haranean. Bertan, Arbizutik Unanurako bidean, Arbizu kanpin ekologikoa aurkituko du bisitariak. Ingurune paregabea, naturaren erdigunean eskaintzen die ostalua ekologikoa, eta aparteko tokia da Andia, Urbasa eta Aralar mendilerroak bisitatu nahi dituztenentzat. Gainera, Beriain mendiaren magalean dago, euskal orografiak duen mendigunerik ikusgarri eta eza-gunetariko batean: 1.493 metroko



Mobile-homeak, modulu bioklimatikoak... askotariko aukerak daude lotarako. Arbizuko kanpina

mendiak, San Donatori eskainiriko ermita du tontorrean, eta hamaika ibilbide eskaintzen du naturaz gozatzeko. Beraz, mendizale eta naturazaleei abenturaz beteriko egonaldia eskaintzen die kanpin ekologikoak.

Baina, inguruetan ez ezik, kanpinetan bertan ere bada zer gozaturik. Izan ere, aintzira naturalizatu bat dago kanpinaren erdigunean, 3.000 metro koadrotik gorako berdegune batean. Aintzira silize-hondarrez inguratuta dago, eta ekintza ludikoetarako erabiltzen dute; hala nola, kayakean ibiltzeko. Aintziraren ondoan bi igerileku arrunt daude: 6x12 metrokoa bata, eta igerile-

ku biribil txikia bestea, haurrentzako.

Eta, ekologikoa izenari izana ere emanez, aintzirako ur-landarediak berak garbi mantentzen du aintzirako ura. Izan ere, iraunkortasun, bioeraikuntza, bioklimatismo eta energia berriztagarri kontzeptuak izan dituzte kontuan kanpina eraikitzerakoan. Ildo horretatik, turismo-aukera iraunkorra eskaini nahi izan dute, kanpinaren ingurune naturala errespetatuko duena. Ildo horretatik, erabilera komuneko espazioak eta zerbitzu-erakundeak egurrarekin eginda daude, eta hormak lastozko fardelekin itxi dituzte, isolatzeko. Material hori erraz erabiltzeko eta merkea da, eta in-



gurunean bertan dago. Kanpoko eragileek lastoa kaltetu ez dezaten, karearekin estali dituzte hormak ondoren. Horrela, espazio beroak sortu dituzte, eta, beraz, energia kontsumoa gutxitu dute, ez baita hainbeste erabili behar gelak berotzeko.

Ostatu gisa erabiltzen diren bungalow etxetxoak ere egurrezkoak dira, eta isolamendurako material naturalak erabili edo berrerabili dira horietan ere; adibidez, artilea erabili dute, eta jeansetako kotoia ere berrerabili dute.

### Ikastetxeentzako eskaintzak

Arbizu ekokanpinak, besteak beste, prestakuntza eta hezkuntza ditu helburu. Horregatik, ekoteknologia, ekoenegia, ekokontsumo eta ardura sozialaren balioetan oinarriturik, ikastaroak antolatzen ditu. Batik bat profesionali zuzentzen zaizkie, baina Lanbide Heziketako ikasleak ere etorri izan dira. Horrez gain, batik bat eskola txikietako ikasleak etorri ohi dira egonaldia egitera, 18 oheko aterpetxe txikia baitute. Eskolako hurrekin hainbat txango egiten dute inguruetan; horietako batean, Idiazabal gazta nola egiten den era-kusten die inguruetako artzain batek ikasleei. Eta, noski, hor dituzte aintzira eta igerilekua ere, gozamenerako. •



## ARBIZUKO KANPIN EKOLOGIKOA

31839 ARBIZU

### Informazioa:

[www.campingarbizu.com](http://www.campingarbizu.com)

### Erreserbak:

[info@campingarbizu.com](mailto:info@campingarbizu.com)

Tel: 848 470 922

Arbizu kanpin ekologikoak mendizaletasunaz eta naturaz gozatu nahi dutenei hamaika aukera eskaintzen dizkie. Gainera, ekologiaren eta ardura sozialaren balioetan oinarriturik, prestakuntza eta hezkuntza ere helburu ditu kanpinak.

### Ostatu hartzeko aukerak:

**LURZATIAK:** karabana, autokarabana, kanpadenda, furgoneta eta antze-koetarako egokiak. Denek argindarra hartzeko beren gunea dute, bai eta ur-harguneak eta hustubideak ere.

**MODULU BIOKLIMATIKOAK:** 36 metro koadro erabilgarri dituzte, eta aproposak dira 4-6 lagunentzat. 150 metro koadroko lurzatieta daude.

**OHATZE-GELA:** ohatze edo literaz osaturiko gela edo aterpetxea ere badute, 18 lagunentzako tokia duena.

**MOBILE HOMEAK:** 4-6 lagunentzako *mobile homeak* ere eskaintzen dituzte.

### Partekatutako guneak:

**AINTZIRA NATURALIZATUA ETA IGERILEKUAK:** 3.000 metro koadroko berdegunean, aintzira naturalizatu bat dago, silize-hondarrez inguratua eta kayakean ibiltzeko aproposa. Gainera, bi igerileku daude: 6x12 metrokoa bata, eta biribil formako igerileku txikia bestea, haurrentzat.

**TABERNA-JATETXEA:** garagardotegi itxura du, eta birziklatutako elementuekin apaindu dute. Gosariak, hamaiketakoak, ogitarakoak, askotariko platerak, menu begetarianoak... Sasoiko eta tokiko produktuak eskaintzen dituzte.

**SUPERMERKATUA:** produktu ekologikoak eta bertako ekoizleen produktuak eskaintzen dituzte.



Berriain mendiaren magalean kokatuta dago kanpina; inguruneak jarduera askotarako aukera ematen du. Arbizuko kanpina



**UNAI MUÑOA**

BERTSOLARIA

Ume bat ez da alferra, bihurria, hiperraktiboa, arreta-falta duena... Hots!

Duela gutxi, arreta falta eta hiperraktibitate-nahasmendu (AFHN) ospetsuaren arrazoi genetikoak frogatu omen zituen Leon Eisenberg psikiatra estatubatuarrek oinarri zientifikorik gabeko baieztapena zela aitortu zuen hil baino zazpi hilabete lehenago, eta, sendatzeko, pastillak agindu baino arago, arrazoi psikosozialetan arakatu behar zela esan zuen.

Ikasleak mugituegiak, arduraga-beak, alferrak, isilak, lotsatiak, hezigaitzak... direla uste dugu, eta arazotzat hartzen ditugu, informazio-iturri badira ere. Eskatzen eta adierazten ez dakizkiten mezuak helarazteko hiz-


## Emozioen garrantziaz jabetzen

kuntza bat dira, bizi-errealitate desberdinen sintomak, eta ez bakoitzaren kode genetikoan idatzita datozen ezaugarriak, ez hori bakarrik behintzat. Ikasleak jakintza eta gaitasun molde berdinetara errenditu nahi ditu hezkuntzak, bakoitzaren ezaugarri eta desireri entzungor eginez. Ez ditu kontuan hartzen egoera pertsonalak eta emozionalak, nahiz eta oinarrizko baldintza diren ikaslearen motibaziorako eta garapen-aukeretarako.

Zirraren garrantziaz jabetzen hasi gara, baina ez dakigu nola ekin. Ez dakigu nola eman lekua gelan negarrari, barreari, haserreari, lehiari, autoestimua lanketari, beldurrei... Ez dakigu nola lagundu harremanetan, ez eta haien arteko gatazkak kudeatzen eta bideratzen ere. Badakit irakasle on asko dagoela eta zenbaitentzat ez dela berria idazten ari naizena. Baina, azken hamarkadetan gizarte nola al-

datu den ikusiko bagenu, eta gure ikasleek dituzten izuak, premiak, autoestimuarazoak, harremanetarako zailtasunak... aintzat hartuko bagenu, edukietan baino arago, norberaren garapenean jarriko genuke arreta agian, eta edukiak helburu izan ordez tresna bihurtuko.

Seguru nago: bere buruan sinesen duenak, bere beldurrak kudeatzeko eta gaitzetzeko gai denak, autoritatearekin harremanetan jartzen ikasten duenak, sozializatzen dituen traba eta gaitasunak ezagutzen dituenak, bere mugak eta ahalmenak ezagutzen dituenak... berez du ikasteko eta garatzeko borondatea, berez motibatuko da metodologia egoki baten aurrean, eta bere lekua topatuko du ikastetxeko sisteman. Agian, gure txikiei entzuten ikasi behar genuke irakasleok eta, bereziki, gurasoek.



**“Badago halako kronograma zehatz bete behar bat. Umeak, ordea, bere erritmoak ditu”**

**Xabier Tapia**



Harpidetza bakoitzarekin,  
are independenteago

ARGIAK eta EUSKAL HERRIAK

# mugarik ez

## Mugak sortzen dituen gastuak **gure gain** **hartu ditugu**

ARGIA n lurraldetasuna eta berdintasuna ditugu oinari. Mugarik gabeko Euskal Herria dugu ipar eta horregatik, harpidetzen tarifak bateratzea erabaki dugu.

ARGIAren balioak praktikara ekarri eta estatuen korreo sistemek sortutako kostuen diferentziak gure gain hartu ditugu. Euskal Herriko herritar denek baldintza berak izan ditzaun.

Gure konpromisoaren koloreekin, Euskal Herria margotzen jarraitzea baitugu erronka.

**ARGIA astean behin jasotzeko aukera:**  
hilean 12 euro baino ez\*

**ARGIA hilean birritan jasotzeko aukera:**  
hilean 7 euro baino gutxiago \*\*

**ARGIA hilean behin jasotzeko aukera:**  
hilean 4 euro baino gutxiago \*\*\*

\*ARGIA astero: 145 euro urtean.  
Ordainketa urtean behin edo bi zatitan egiteko aukera.  
46 zenbaki + 11 Larrun eta Urtekaria.

\*\* ARGIA hilean birritan: 77 euro urtean.  
Ordainketa urtean behin, 22 zenbaki + 11 Larrun.

\*\*\* ARGIA hilean behin: 41 euro urtean.  
Ordainketa urtean behin, 11 zenbaki + 11 Larrun.

ESKAERAK

943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza

 **argia**



# XVI. HIK HASI Udako Topaketak

Donostia. Uztailak 1, 2 eta 3  
Leioa. Uztailak 6, 7 eta 8

hh



Tokia geratzen den hainbat ikastarotan izena eman liteke:

**DONOSTIAN:** Pikler-Loczy: haurra ukitzen dugunean  
**NIK irakastetik BERAK ikastera** ♦ Gizarte Zientziak lantegia  
Nerabeak eta hezkidetzak ♦ Haurrentzako masajea  
**Pentsamendu autonomoa eta sortzailea**  
Hezkuntza proiektuak sortzen  
**KAMISHIBAI tailerra** ♦ **Eskola emozionala**  
**Alfabetomotrizitatea**

**LEIOAN:** Haur Hezkuntzako psikomotrizitate praktika  
Nola saihestu eta kudeatu eguneroko gatazkak  
**Entrenamendu mentalaz eta ametsak aztertuz, zoriontsu!**  
Yoga eta kontzentrazio teknikak eskolan

Informazioa: [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)

943 371 408